



# ARGIA

## *Hezbollah eta Israel aurrez aurre*

IDATZI GABEKO ARAUEK  
MUGATURIKO GERRA LIBANON

26-31. orrialdeak

Israelen drone batek  
Beiruten hil zuen  
Hamaseko buruzagi  
Saleh al Arouriren  
hileta, Shatilako  
errefuxiatu eremuan.

#2.864 | 2024 / 03 / 24 | 4,00 €



***"Kriminalen eskuetan  
gaudela pentsatzen  
dut batzuetan"***

16 | KRISTINA BERASAIN



***Informaziorik  
eza entzumen  
urritasunaren bueltan***

38 | GIZARTEA



***Musika eta irudia:  
bideoklipak lentearen  
beste aldetik***

46 | KULTURA



DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #294  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ARTOAREN IRAULTZA

ARGIA.EUS/LARRUN

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 21 | ASIERA BLAS
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | MIKEL BASABE
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | ANUNTXI ARANA

## Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK: IRATI  
ERAUSKIN
- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ARGAZKIA: © MARTA MAROTO

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



### 46 | BIDEOKLIPAK

Lander Arretxeak ondutako erreportajeaz azaldu du euskal bideoklipen loraldia bizi dugula. Kantuak iruditara eramateko arte honetan ari direnekin mintzatu da, genero hau zergatik lantzen duten azaltzeko. Dirurik ez baina askatasuna ematen omen die.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**CO2a atmosferatik kentzeko ingeniariak: lurra ustiatzen segitzeko aitzakia?**

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | KRISTINA BERASAIN

**“Palestinakoa ikusita, zer egingo du orain Marokok Sahararekin?”**

Reyes Ilintxeta

26 | NAZIOARTEA | LIBANO

**Inork nahi ez duen gerra saihetsezina**

Marta Maroto

32 | KIROLA | FELIPE DE LUIS MANERO

**“Urtain propaganda politikorako erabili eta gero erortzen utzi zen”**

Eñaut Agirrebengoa

35 | NAZIOARTEA | IBRAHIM BILMEZ

**“Öcalanen aurkako sistema garatu du Turkiak Imraliko espetxean eta beste preso politikoan aurka baliatu du”**

Aitor Aspuru

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,  
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,  
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.  
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA










# Troleatu kapitala

Elon Musk teknologian oinarritutako muturreko kapitalismoaren aurpegi garaikidea da. Trumpismo teknologikoa. Gezurra esateko adierazpen askatasunarena. "Gizateriarentzako onuraren" izenean arau ororen gainetik egon eta jeinu teknologiko gisa agertzen saiatzen diren horiena. Baina Musk produktua besterik ez da. Bere arrakasta gobernuak sustatutakoa da. Bere proiektuak diru publiko kopuru izugarriekin lagundu dituzte, eta langileak esplotatu bitartean, berari eta gainerako enpresari aberats batzuei aukera eskura eman diete ekonomiaren eta politikaren gaineko kontrol gero eta handiagoa izateko.

📺 "Nire ideia pieza bat egitea zen Musk eta berak ordezkatzen duena troleatzeko", dio Chavis Mármol artista mexikarrak artelanaz: berak zizelkatu duen bederatziko tonako olmeken buru bat, gama altuko Tesla auto baten gainean. / AFP

 AXIER LOPEZ



# Nork egingo du euskara ofizial?

LEIRE ARTOLA ARIN

**K**orrikak lehen asteburua Nafarroan egin du, eta argi ikusi dugu ez dagoela Nafarroa bat, ez eta hiru ere, baizik eta hainbat. Herri herri egoerasoziolinguistikoa eta euskaltzetasuna erabat aldatzen dira, eta Korrika ere izan da horren lekuko. Arrazoi sakonagoetan sartu gabe, banaketa horren arrazoi nagusietako bat zonifikazioa da, nafarrak baldintzatzen dituen eskubideak izatera edo ez izatera, jaioterriaren arabera. *Euskalduntasun maila* neurtzen jarraitzen dute instituzioek; euskaldunak gutxiengoak badira udalerrri batean, izorra daitezela eta moldatu daitezela *hizkuntza unibertsalera*, elkarbizitzaren izenean.

Lehen Korrika antolatuta eta urte gutxira, 1986an Euskararen Legeak hiru eremutan zatitu zuen Nafarroa: eremu euskalduna, ez-euskalduna eta mistoa. Nafarroako Parlamentuak 1982an onartu zuen Foru Hobekuntza Legearen ondotik ezarri zuten oraindik ere martxan den arau baztertzaila.

Euskalgintzatik urteak daramatzate zonifikazioaren aurka borrokatzen, eta Korrikan ere aldarri hori presente egon da. Nafarroako Parlamenturaino iritsi da eskea, Iruñean: Euskal Herrian Euskaraz eragileak 495. kilometroa egin du 'Ofizialtasuna Euskal Herri osoan' zioen pankartarekin, eta 496. kilometroan lekukoa hartu duen Nafarroako Parlamentuari gutuna igorri dio. Sugo Etxarri EHEko kideak lekukoarekin batera gutuna eman dio Unai Hualde Geroa Baiko parlamentuko lehendakariari, eta testua parlamentuan irakurtzeko eskatu. Korrikaren lekukoa eurei pasatzea "mingarria" dela aitortu dute EHEko kideek: "Euskaltzaleok aspertuta gaude instituzio publiko nagusietatik egiten



Nafarroako Parlamentuaren kilometroa probestu dute eskatzeko zonifikazioa amaitzeko.


duzen *basquewashing*-az, hau da, euskararen alde zaudetela adierazi eta jende asko biltzen den Korrika bezalako ekitaldietan argazkian agertu bai, baina ondoren, egunerokoan, euskararen eta euskaldunon aurkako politika publikoak egiten dituzuela ikusteaz".

Ahaztu gabe AEKrentzat ezinbestekoa dela kilometroa erosten duen norbanako, elkarte eta eragile guzti-guztien diru ekarpena, agerikoa da askorentzat erraza dela diru kantitate bat eman eta euren politikekin jarraitzea. Erosoa zaie euskararen alde 11 egunez soilik (edo, are, euren kilometroak irauten duen bitartean soilik) egotea. Eta erosotasunak ez dakar aldaketarik. EHEk Nafarroako Parlamentuari gogorarazi zion "euren esku" dagoela euskara lurralde osoan ofizial egiteko erabakiak hartzea. GSK

eta Ikasle Abertzaleek ere 496. kilometroa probestu dute salatzen parlamentua "euskararen etsaia" dela. "Zuen apurra, euskararen miseria" zioen leloaren aurretik egin dute korrika parlamentariak, agian luzeegi eta deserosoegi egin zaien Sarasate pasealekuan.

Kontrara, oso bestelakoa izan da Joseba Asiron Iruñeko alkateak izandako harrera. 500. kilometroan hartu du Asiron euskararen lekukoa, alkate makilaren lekukoa hartu zuen Udal Plaza berean. Txiki geratu da plaza, eta ilusio eta eskertza adierazi diote herritarren oihuek. Etxean, eroso egin dute Korrika Iruñeko Udaleko politikariek, eta txalo eta irribarre artean igaro dute Alde Zaharra. Korrikak "eremu ez euskaldunerantz" jarraitu du, Iruñea atzean utzita. Nork hartuko du lekukoa orain? ●


## BABESLEA:



**HIZKUNTZA**  
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"  
Antoine de Saint-Exupéry





## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Ohean



UXUE APAOLAZA LARREA

**O**hea altzari bat da. Hain eroso den ia edozeren moduan, artifiziala, gizakiak perfektionatua. Ez gara hezetuta jaikitzen, lehor eta goxo baizik; ez dugu hotzik pasatzen; ez dugu inongo minik izaten esnatzean. Ohea zoragarria da, ez digu beharrik sortu, bagenuen bat, lo egitea, plazer bilakatu du. Etxe, gordeleku sabairik gabe ere. Lo ondo egin badezakezu, ahula izan bazaitezke, zeure etxea da.

Oheari begiratuta, batzuek ikusten dituzte tapakiak, ondo aireztatu beharrekoak goizero, ohea egin aurretik. Ohea egiten baduzu, logela ordenatuta dagoela dirudi; egin gabe, ez dago gela txukuntzerik. Izarak, mantak, koltxa, nordikoa. Fundak. Funden kolorea logelarena da, egunean azkena ikusten duzunetakoa, goizean lehenengoetakoa.

Izan daiteke bikoitza, lehen matrimoniokoa, orain bakoitzak daki. Bikoitza bakarrarentzat. Koltxoiak malgukidunak, aparrezkoak, latexezkoak, biskoelastikoak. Oheburu klasikoak, modernoak, minimalistak, doratuak, geometrikoak, bihurrituak. Ohebururik ez. Ohe errezeldunak txikitako ametsetan. Koltxoa lurrean bota eta kitto.

Ohea altzari bat da, bagenuen behar bat plazer bilakatu du. Etxe. Ahula izan bazaitezke, zeure etxea da. Ahula. Eta beste inon izan ezin bazara, besterik izan ezin duzun egunetan, ohean baino ez zara. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## MOTZEAN

**Sindikatu deitzaileen arabera, ikasturte honetan EAEko sektore publikoan antolaturiko greben artean jendetsuena izan da martxoaren 12koa, eta batez ere garraio publikoan, hezkuntzan eta udal esparruan izan du eragin handiena. "Errotik aldatu behar dira orain arteko politika publikoak", aldarrikatu dute.**

**Riderren lan eskubideak bermatzen dituen direktibaren alde egin du Europar Batasunak. Frantziako Estatua eta Alemania izan dira aurka kokatu diren estatu bakarrak.**

**Apirilaren 2-3an epaituko dituzten 'Txetx' Etxeberri eta Beatrice Molle-Haran bakegileen errugabetzea eskatu dute 200dik gora aurpegi ezagunek Luhuson, Bake Bideak deituta.**

**Polizia operazio "arrazista" salatu dute Donostian: 29 lagun Poliziaren etxera eraman dituzte identifikatzeko, Martutene auzoko etxe okupatu batetik.**

**Espainiako Osasun Ministerioak kondoiak doan izatea nahi du, 14 urtetik 22 urtera bitarteko gazte guztientzat. Prebentzioan indarra egitea da xedea.**



## Mercadonaren eskuzabaltasuna



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

Urteko emaitzen aurkezpenekin jarraitzen dute enpresa eta multinazionalak. Oraingoan BBVA eta Mercadonak erakutsi eta azaldu dizkigute euren irabaziak. Goia jo dute biek berriro ere. Bankuak, aurreko urtean baino %26 gehiago irabazi du; banaketa konpainia espainiarrak, berriz, %40 handitu ditu etekinak. Interes tasen igoera batean eta bizitzaren garestitzea bestean, biek izan dituzte irabazi itzelak aurreko urtean, herritar gehienok arazo ekonomiko eta sozial bezala ikusi eta bizi izan ditugun egoera horiei esker.

Behin eta berriro esan digute enpresek, garai hauetan, ziurgabetasunari eta etorkizuneko erronkei aurre egin behar dietela, eta hori ere aintzat hartu beharko genukeela politika publikoak egiterakoan, lan merkatua erregulatzerakoan edo hitzarmenak negoziatzerakoan. Halako irabaziak publikoak izan arren, batere gorritu gabe eusten diote diskurtso horri gainera. Eta beste askok txalotu egiten dute, enpresek aberastasuna sortzen jarraitzen duten bitartean soldaten eta zergen bidez oparotasuna guztiongana iritsiko delakoan.

BBVAko langileek euren errealitatea batzarrera eraman zuten, irabaziak handitu arren soldadak eta lan baldintzak okertu direla salatzen. Mercadonaren jabeak aldiz, ozen eta harro aldarrikatu du irabaziak langileekin partekatuko dituela. Hitzarmenera jotzea besterik ez dago soldataren atalean aukera hori jasotzen dela ikusteko; enpresaren emaitzak nola banatzen diren ez da langileekin adosten noski, ez dago hitzarmenean jasota, hori erabakitzea ez dago langileen esku. Mercadonako langileek, urteko soldata osoa jasoko dute beraz, adostuta duten bezala, ez gehiago. Horrela ba, adibide honekin ikus dezakegun moduan, langileek enpresen etekinetan dute parte hartzeaz hitz egitea ez da gehiegizkoa, iruzur hutsa da. ●



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

## “Ez ohitu” Gazako genozidiora

ERREDAKZIOA

250 kulturgiletik gorak egin zuten deialdia “Kulturatik genozidioari stop” manifestaziorako. Milaka lagunek Donostiako Alderdi Eder eta Haizearen Orroria arteko ibilbidea bete dute martxoaren 17an. Hainbat esku-hartze artistiko izan dira tartean. Inpakturik handiena, ibilbidean zehar manifestariak lurtean etzanda lortu dute. Drone bidezko irudiek Gazako sarraskiaren irudikapena jaso dute.

Ez da ohiko manifestazioa izan. Errepedetik ez, baizik eta espaloietatik egin dute protesta manifestariak. Donostiako Alderdi Ederren hasi eta Haizearen Orrorian bukatu. Ibilbidean zehar musikariak, bertsolariak, dantzariak eta abeslariak aritu dira. Protestarako egindako 23 artelan ere ikusi ahal izan dira bidean. Kulturgile ugari elkartu da martxoaren 17ko manifestazioan, batzuk aritzera, (Olatz Salvador, Mikel Urdangarin, El Drogras, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta abar), eta beste batzuk deialdian hartu dute parte, hala nola, Bernardo Atxaga, Itziar Ituño, Gorka Otxoa, Alex Ubago, Iñaki Gabilondo, Eñaut Elorrieta, Ruper Ordorika, Toti Martinez de Lezea.

### “EZ OHITU, EZ AHAZTU”

Ibilbidean zehar “Israeli boikot, Palestina askatu”, “estatu sionista, estatu terrorista” eta “ez da gerra bat, genozidio bat da” oihuak entzun dira. Haizearen Orrorian, ibilbidearen bukaeran, adierazpena irakurri dute Mireia Gabilondok, Aitziber Garmendiak, Josean Bengoetxeak eta Itziar Atienzak. Adierazpenaren izenburua zen, “Ez ohitu, ez ahaztu”. Adierazi dute, ez dutela nahi ohitzerik “suntsipen eta sufrimendu amaigabera”, ez dutela ohitu nahi “AEB buru duen eta Europar Batasuna atzetik duen ‘mundo libre eta zibilizatuaren’ konplizitate epelera”. Ez dute ohitzerik nahi “egunero bonbardatzen dituzten ospitale eta anbulantziak, anestesiarik gabeko anputazioetara, gosetera, umiliazioetara, espetxeratze eta tortura sistematiakoetara”.

Adierazpenaren bukaeran agintari politikoei eta Europar Batasunari eskaerak egin dizkiete: “Konplize bihurtzen gaitu denbora pasatzen uzteak, besoak gurutzatuta eta gauzei bere izenez deitu gabe. Izan ere, genozidioa da, apartheid sistematiakoa. Horregatik eskatzen diegu gure agintari eta politikariei Israelekin dituzten harreman komertzial, militar eta diplomatiko guztiak bertan behera uzteko. Sarraskiaren aurrean, Europar Batasunari eskatzen diegu neurri sendoak har ditzala erasotzailea bere oldar bortitzari amaiera ematera behartzeko: behin betiko su-etena, okupazioa amaitzea, eta gizonen, emakumeen eta haur errugabeen aurkako indarkeria amaitzea”. ●



14

gaitz bilatuko ditu aurrerantzean jaioberriei egiten zaien orpo-probak, EAEn. Beste lurralde batzuekin konparatuta, atzeko postuetan dago EAE: Nafarroan 28 gaitz aztertzen dituzte, Galizian 33, Andaluzian 34, Italian 48...

%5

da EAeko nekazaritza lurren artean ziurtagiri ekologikoa daukana. Europako Itun Berdeak 2030erako helburutzat duen %25etik urrun dago oraindik kopuru hori.

2.526

pertsona, menpekotasun egoeran zeudenak, hil egin dira 2023an artatuak izateko esperoan, EAEn. Nafarroan berriz, 100 pertsona hil dira esperoan.

*“Gazte belaunaldien ahotsa izan nahi nuen, hor dauden mugimendu desberdinen ahotsa”*

**AROA ARRIZUBIETA BARREDO**

Arabako bertsolari txapelduna

**NAIZ (2024-03-17)**



**“TRANSIZIO ENERGETIKOA' LEMATZAT DUEN BIZIMODU INPERIALAK EZ GAITU INFERNUTIK ATERAKO”**

**JORGE RIECHMANN**

Ekologista ezkertiar antikapitalista


**ARGIA.EUS (2024-03-12)**

*“Mundua aldatzen ari da eta mehatxuak entzun ditugu. Europak defentsan gehiago gastatu behar du, hori ebidentzia da”*

**LUIS DE GUINDOS**

Europako Banku Zentraleko lehendakari ordea

**2024-03-15**





## TEKNOLOGIA

## Efizientziak gidatuta



DIANA FRANCO

**I**kasle garaian erakutsi zidaten eragin-kortasun eta efizientzia hitzen atzean zegoen ezberdintasuna. Garai hartan efizientzia helburu bat iruditzen zitzaidan, gaur egun ez nago hain ziur. Eraldaketa digitalei esker lorturiko efizientziak onura asko ekarri dizkigu, behintzat arrakala digital handirik momentuz pairatzen ez dugunoi, nire kasuan, batez ere kudeaketan eremuan. Aurreko astean ordea, adimen artifizialaren eta efizientziaren inguruan pentsatzen aritu naiz, Hezkuntza Librezale taldeak duen Telegram talde irekian kide batek honako berria partekatu duenean: "Nvidiako zuzendari nagusiak dio haurrek ez luketela programatzen ikasi behar" (-LinuxParty). Hitz hauen atzean dagoen ideia da adimen artifizialak ahalmena duela denok sortzaile bihurtzeko eremu digitalean, eta beraz, jada ez dugula programatzen jakin beharrik, ordenagailu bidez marraztu beharrik, ordenagailu bidez bideoak editatu beharrik, idazten eta irakurtzen jakin beharrik?...

Batzuetan, horrelako baieztapenek larregi izutzen nautela uste dut. Baliteke, halako ideien atzean dauden pertsonak ez bilatzea erosotasunaren izenean gure munduarekiko eta bertan dauden teknologiekiko ulermenaren garrantzia albo batera utz dezagula, gure eragiteko aukerak murriztu ditzagula, eurak, teknologia garatzaile handiak, boterea batzen jarraitzeko bidean. Baliteke, oraingoan gure bizitzetan sartzeko beste Troia Zaldi bat lantzen ez egotea, orain pentsatu ere ezin ditugun negozio ereduak sortzeko bidean ez egotea, gure bizitza eta lanak, inoiz ondo ulertuko ez ditugun zergatiengatik, prekarizatzen diren bitartean. Beharbada, hobe nuke pentsatzea orain nire eskura ez dauden sorkuntza aukera berriak izango ditudala: adibidez deskribapen batekin sortu ahal izatea App bat, irudi bat, webgune bat, bideo-joko bat... Momentuz, bazterretik begiratzen dut, gertatzen ari dena eta horren onurak eta kalteak ondo ulertu barik. ●

## NAZIOARTEA



## Haiti Mad Max

AXIER LOPEZ

**H**aitiko lehen ministroak dimisioa eman du talde armatuen eta Haitiko armadaren eta Poliziaren arteko liskarren ondorioz. Gobernuaren aurkako talde armatu horiek herrialdeko zenbait zonalderen kontrola bereganatu dute. Ariel Henryk 2021ean hartu zuen kargua. AEBen babesa zuen Jovenel Moise presidente ultraneoliberal eta ultrakontserbadoreak izendatu zuen haren ondorengo, hain justu Kolonbiako paramilitar talde batek Moise hil baino bi egun lehenago. Henryk Puerto Ricotik eman du dimisioaren berri, eta gehitu du trantsizio kontseilua sortuko dela huteskunde berriak bideratzeko.

Unicefeko zuzendari exekutibo Catherine Russellek esan du Haitiko egoera hamarkadetan ikusi den egoerarik okerrrena dela. "*Mad Max*-en eszena bat da ia", adierazi du 1979ko filma gogora ekarrita, zeinak indarkeria, eskasia eta estatuaren erabateko gabezia nagusi ziren gizarte distopikoa deskribatzen zuen.

Baina Haiti ez da fikziozko filma. Egungo egoera dramatikoak arrazoi oso errealek ditu, eta, batez ere, interes lurtarrak. "Taldea armatuen biolentzia" deiturikoa ez da egiazko arazo nagusia, funtziozko arazoa nazioarteko komunitatearen etengabeko interferentzian datza, zehazkiago, AEB, Frantzia eta Kanadarena", dio Vancouverreko Columbia Britainiarreko Unibertsitateko irakasle eta aktibista dekolonial Jemima Pierrek.

Haitin ez da hauteskunderik egin 2016tik, baina azken hauteskunde gardenak 1990eko presidentetzarako hauteskundeak izan ziren, Jean-Bertrand Aristide apaiz salestarra bote-

rera eraman zutenak. Krisi eta estatu kolpe batzuen ondoren, 2004an AEBek, Frantziak eta Kanadak bat egin eta Aristideren aurkako behin betiko kolpea babestu zuten. AEBetako Itsas Armadako soldatuek hegazkin batera igo zuten Aristide, bere segurtasunaz arduratzen ziren funtzionarioekin, emaztearekin eta laguntzaile batekin batera, eta Afrika Erdiko Errepublikara eraman zuten.

Haitik hemisferio osoko indize sozioekonomiko kaskarrenetako batzuei lotutako egitura-arazoak ditu: pobrezia, desberdintasunak, gosea, elikadura-segurtasun eza, prekarietatea, landa-exodoa eta gazteen exodoa. Amerikan eta munduan barrena sakanbanatutako diaspora handi bat eragin dute, besteak beste. Munduko lehen "errepublik beltza" jaio zenetik, Mendebaldeko potentzia kolonialen txotxongilo izan da, eta, hain zuzen ere, ustelkeria sistematiko horrek galarazten du irtenbide iraunkor posible oro.

Herrialdearen azken krisi handian, 2022ko irailaren amaieran, Haitiko 42 erakunde gutun irekia bidali zioten NBEko idazkari nagusiari eta, ondokoa esan zioten: "Zuk eta haitiarren borondatearen aurka zaudeten nazioarteko gainerako eragileek kosta ahala kosta lagundu nahi duzuen Ariel Henryk uko egin behar dio aginteari, ezinbestean. Gogoan izan beharko zenuke NBK azken hemezortzi urteetan (2004-2022) Haitin egindako misioek porrot ukalezina izan dutela. Egoera hobetzen lagundu beharrean, egoera okertu zuten guztiak". Bi urte pasa dira eta orduan esandakoa berretsi da. ●



## ASTE POLITIKOAREN KRONIKA

# Bejondeiela

 GORKA PEÑAGARIKANO

**P**andemia aurretik mugarrria ezarri zuena, geurean, Berri Txarrak izan zen; azken kontzerturako sarrerak mila hilabete lehenago ipinita, F5 tekla guztiak izorratu eta webgunea kolapsatu zituena. Pandemia aroan, gero, ugaldutxartelak online hartzeko moda, eta ordu luzez ilara egitearena ja ez da inon ikusten. Futbol partidetakoticketen kasuan agian bai, futbol zaleek jakingo dute, ea munduko txoko ezagunen bateko fanatikoek jarraitzen ote duten kanpaldia egiten. Ez da plan txarra berez. Izango da leku bakarra hogeitertsona baino gehiago espazio publikoa ordu luzez okupatzen egon eta autoritateak baimentzen duena. Situazio horietan, gainera, sekula ez da fueta eta ogia mozteko labana faltako –bai, beste egoeraren batean armaturik zoazela leporatu eta ez nolanahi *enpapelatzeko* aitzakia ematen duen laban hori-. Eta ziur garagardorik ere ez dela faltako; eta ez balego ere, aski denbora bada erostera joateko. Denentzat zerbeza erostera joaten denari ez dira lekua kentzen atrebituko.

Baina itxaronaldi analogikoan dago benetako bataila. Eta gauzak diren bezala: *gaupaseroenak*, jeltzaleak. Ez dakigu ea subiranistekin jan-edana konpartitu ote duten, elkarri kontatzeko zeukaten dena kontatu duten... baina hotza pasatu dutela, hori ziur. Aurpegi triste samarra zuten hurrengo goizean –argazkia ikusi nahi duenak badaki zein hedabideetan egin kontsulta; kazetaritzaren kode deontologikoen arabera zilegi ote den argazki hori publikatzea, horra hor zalantza–.

Kontua da EAJko gazte batek –jakizu ea militantea den, noizbait alderditik bizitzea duen amets, edo soldatapean zein egoeratan zebilen, “obra” kontratuarekin edo– 48 ordu (!) pasatu dituela Gasteizko Justizia Auzitegiaren atarian,



Iñigo Urkullu, 2020ko hauteskundeetan, boto-papera hartu eta bozkatzera joaten.

asteazkeneko 9:00ak izan arte. Orduantxe zabaltzen zen alderdiak hauteskundeetara aurkezteko epea. Izena ematen duten ordenaren arabera ipini ohi dira boto-paperak hauteskunde mahaietan, eta postaz bozkatzeko moldean ere bai, apuntatutako hurrenkera horretan helitzen dira etxera. Jeltzale eta subiranistek egin dute ilara, eta Gipuzkoan izan ezik, beste bi lurralde historikoetan jeltzaleak nagusitu dira. Hainbeste orduz ilara egitearena harriduraz kontatu dute hedabideek, baina behin eta berriz errepikatu dute alderdiek uste baino eragin handiagoa duela detaile horrek botoa hautatzekoan, ez dela txorakeria.

Lehen zeharka aipatutako hedabide horien bitartez jakin dugu marka guztiak hautsi dituela EAJk 48 orduko itxaronaldia eginda –udal eta foru hauteskundeetarako, esaterako, 17 ordu besterik ez (!) baitzitu en igaro–. Bada, sare sozialetako erabiltzaile batek, argazkidun notiziari erantzunez, “zorionak EAJ” iruzkindu du. Akaso zuzenagoa zatekeen “bejondeiala, EAJko langile hori” esatea. Eta ja-

kina, bejondeiela EH Bildukoari eta ilara egiten gaua pasatu duten guztiei ere.

Momentuz nahiko lasai dago kanpaina politikoa; ez dute askorik sakondu programa politikoen promesetan. Irudia eta marka lantzen ariko dira, terrenoa preparatzen, hautagaiak ezagutarazten. Baina dagoeneko eman dute argitara ematea espero ez zuten irudi bat, epaitegien kanpoaldeko ilararena. Berria egunkarian irakurri ahal izan dugu erreportaje eder bat, irudiari eta komunikazio politikoiari buruzkoa, Irati Egibar Izeta kazetariak egina. Jantzkeraz mintzo da zertxobait, alkandora zuri estuek komunikatzen omen duten “gardentasun irudiaz”, kanpainaren eszenografiak... Kurioso da: bi hautagai printzipalek *berria* edo *aldaketa* hitza darabilte, baina gaua ilara eginez kanpaldia pasatzeko moduko kontu zaharrak egiten dituzte. “Beste mundu batean bizi dira”, izango zen, akaso, eman duten itxura deskribatzeko gehien gailendu den esaldia. Elektoralismoa zeinen profesionalizaturik daukaten, hori ere bai. ●



# CO<sub>2</sub>A ATMOSFERATIK KENTZEKO INGENIARITZA: **LURRA USTIATZEN SEGITZEKO AITZAKIA?**

Klimaren arazoa ingeniariak kontu bat soilik ote da? Atmosferaren berotegi efektua indartu du munduaren industrializazioak, karbono dioxido kopuru erraldoiak isuri baititugu airera, gure biziraupena kolokan ezarri arte. Zergatik ez, beraz, karbono dioxido hori berriz harrapatu, hain modu eraginkorrean, erregai fosilak arriskurik gabe erabiltzen jarraitu ahal izateraino? Hori da *Carbon Dioxide Removal* (Karbono Dioxidoaren Kentzea) teknika –mundu mailan CDR akronimoz ezaguna– egiteko gai omen dena. Edo beharbada ez.





**KANADA** Alberta probintzian bioenergian oinarrituriko zentral elektrikoa. Ekoizpen horrek "isurketa negatiboak" sortu arren –atmosfera isurtzen duen CO<sub>2</sub> kopurua baino gehiago lurpean harrapatzen baitu–, energia beharren adinako biomasa ekoizteko lur azalera erraldoiak behar ditu.

WIKIMEDIA / CC-BY-SA



**A**tmosferatik karbonoa kentzeko, lurreko eremuetan garatu daitezkeen aukeren artean, bi dira nagusiki aurkitzen ditugunak: batak *bioenergia karbono harrapatze eta metatzearekin* zerikusia du, nazioartean ingelesezko BECCS akronimoz ezaguna. Sistema horrekin, biomasa askoko landare bat hazten da lehenik, gero zentral termikoetan elektrizitatea sortzeko erretzen da, eta erretze horrek isurtzen duen CO<sub>2</sub> gehiena harrapatzen da, azkenik lur azpian metatzeko. Harrapatze "geologiko" hori iraunkorra izanez gero, finean CO<sub>2</sub>a atmosferatik kentzea lortzen da, elektrizitatea ekoiztearekin batera. Karbonoa kentzeko bigarren aukera nagusia, oihaen landatzea edo birlandatzea da -A/R akronimoz ezaguna-, baldin eta egurra ez bada gero erretzen birlandatu gabe.

IPCCren (Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea) hirugarren lantaldeko azken txostenean, aztertu dute zenbat CO<sub>2</sub> kendu litekeen atmosferatik BECCS eta A/R sistemekin: lehenarekin 11,3 eta bigarrenarekin 10 Gt (mila milioi tona) CO<sub>2</sub> urtean. Kopuru oso esanguratsuak dira, kontuan hartuta 2023an munduan 37,4 Gt CO<sub>2</sub> isuri zirela. Hau da, isuri horien %57 harrapatuko genituzke, edo bertzela erranik: isuriak %43 murriztea lortuko bagenu "net zero" helburu famatua lortuko genuke. Hori, gehienezko potentzial edo kopurutan oinarrituz gero. Batez bertzeko balioak, aldiz, 5,9 eta 3,9 Gt lirarteke BECCS eta A/R sistementzat.

Hala ere, helburu hori ez genuke alko kalterik gabe lortuko, eta IPCCk ez ditu zehazki horiek aztertu. Hain zuzen alko kalte horietako batzuk erraldoiak lirarteke eta karbono dioxidoa kentzeko CDR teknikak erabiltzeko asmoak birpentsatu beharko genituzke. Hala dio *Science* aldizkarian berriki argitaratu duten *Sustainability limits needed for CO<sub>2</sub> removal* (Behar diren jasangarritasun mugak CO<sub>2</sub> kentzeko) artikuluak.

### ISURI GUZIAK HARRAPATZEAREN PREZIOA

Lan horren egileek diote IPCCk aztertu dituen balizko klima ibilbideetan BECCS eta A/R egitasmoek inplikazio esanguratsuak izanen lituzketela giza jardueretan eta elikadura segurtasunean. Baina IPCCk ez ditu ibilbide horiek sakonki aztertu ingurumen eraginen ikuspuntutik, baizik eta muga tekniko eta ekonomikoaren arabera soilik.

Hori horrela, orain arte ez zen oztopoztat jotzen 29 milioi kilometro koadro lur



WIKIMEDIA CC-BY-SA

**GENETIKA** bidez aldatutako zuhaitz landaketa bat Iranen, bere laugarren urtean. Horrelako landaketak baino oiha anitzen babestea eta berrosatzea lehenetsi behar dira, klima eta biodibertsitate helburuak bateragarriak izan daitezzen.

## Enpresa handientzat erraza da landaketen bidez erregai fosilen erabilera konpentsatzeko kopuruetara iristea; gero publizitatea egiteko baliatzen dute hori

bertze modu batean erabiltzea, bioenergiarako landareak hazteko edo zuhaitz landaketekin estaltzeko kasu. Azalera hori Europar Batasunaren azaleraren ia zazpikoitza da, eta aldaketa horrek 300 milioi pertsonaren elikadura segurtasuna kolokan jarri lezake. Jasangarritasun arazoak -landa eremuei bertze erabilera bat emateak edo biodibertsitate galerak ekar ditzaketena- agerikoak lirarteke BECCS eta A/R sistemek hurrenez hurren urtean 1,3 eta 3,8 Gt harrapatzea lortuz gero: hau da, berotegi efektuan eragin esanguratsuren bat lortu baino askoz gutxiagorekin, jadanik kalteak sortuko lituzke.


Ikerketarekin argitaratu duten prentsa-agirian irakur daitekeenez, IPCCren iritziz prezio onargarrian egingarria den CDR maila horrek arriskuak sortzen dituela laborantzan, giza-jardueretan eta biodibertsitatean, gure planetan ez baita lur aski CO<sub>2</sub>a neurri horretan harrapatzeko. Egileen ustez biodibertsitatea, ur gezaren erabilera eta elikadura-segurtasuna izan beharko lirarteke CDR egitasmoei mugak ezartzeko irizpideak.

### ARAZOARI SERIOSKI EKITEA, GERORAKO UTZI

Orain arte, hainbat estaturen klima estrategietan CDR teknikak eta batez ere zuhaitz landaketa proiektuak nabarmendu dira, merkeak direlako eta azkar garatu daitezkeelako. *Science*-ko artikuluaen egileetako bat den Melbourneko unibertsitateko Kate Dooleyk dio, enpresa handiek eskala handiko landaketa horiek iragartzen dituztela bereziki, horien bidez erraza baita erregai fosilen erabilera konpentsatzeko kopuruetara iristea, eta gero publizitatea egiteko baliatzen dutela hori.

Baina CDR baliatzea etengabeko erregai fosilen erabilera konpentsatzeko, ezin da zilegi izan Dooleyren iritziz. Hala, gobernuen klima estrategietan





WIKIMEDIA / CC-BY-SA

**ERRALDOIA** *Miscanthus × giganteus* bioenergiarako hazi daitezkeen espezieetarik bat da, urtean biomasa asko sortzen duelako eta horretarako ur eta nutriente gutxi behar dituelako.

ondo banatuta eta gardentasunez azaldu-ta egon beharko lirakete bi eremu: alde batetik isurketa murrizteko xedeak, eta bertetik CO<sub>2</sub> harrapatzeak. Gainera, azkeneko hori ahalik eta gutxien sostengatu beharko lukete, eta aldiz, ekosistema naturalak babestu eta berrosatzea izan beharko luke helburu nagusia.

Artikuluaren egile nagusietakoa den Pariseko IDDRI garapen jasangarrirako institutuko Alexandra Deprezek, berriz, azpimarratu du gobernu eta industria askok CDR proiektu handiak bultzatzen dituztela, isurketak azkarki murrizteko ahaleginak gerorako uzteko aitzakia izan dezaten. Baina horrek atzerabiderik gabe

Orain arte ez zen  
oztopoztat jo 29 milioi  
km<sup>2</sup> lur aldatzea,  
bioenergiarako landareen  
hazteko edo zuhaitz  
landaketaz estaltzeko

giltzatu gaitzake 1,5 graduko mugatik gorako berotze globalean, eta era berean biodibertsitate galera emendatuko luke, Kunming-Montreal gailurretako helburuak kolokan jarrita –hori gabe ere, helburuak betetzetik urrun garela kontuan izanik–.

Hiru aholku eman dituzte egileek egoera hori saihesteko. Bat, “zintzotasun” estandar altuak ezarri CDR merkatuan, soilik erabili daitezkeen saihestu ezin diren hondar-isurketentzako. Bi, estatuak derrigortu, ez bakarrik isurketen murrizketen eta CDREN xedeak ezberdindu ditzaten, baita isurien murrizketa maximizatu, CDR erabilera minimizatu, teknika horiek zer konpentsatzeko erabiltzen diren azaldu, eta CDR proiektuak landa eremuetan ahalik eta kalte gutxien eragiteko pentsa ditzaten ere. Eta hiru, klima eta biodibertsitatearen gobernantzak bateragarri bihurtu, oihanean babes finantzatu eta, landaketa hutsak baino, oihanean berrosatzea lehenesteko. Hori dena lortzeko, CDR proiektuen gizarte-eta ingurumen-eraginak neurtzeko adierazleak beharko lirakete euren ustez.

Kompentsazioei dagokionez, David Ho Hawaiiko unibertsitateko ozeanografoak arazoa horrela laburbildu du: kontua ez da CDR gehiago beharko dugula erregai fosilak aski azkar erabiltzen uzten ez baditugu, kontua da erregai fosilak aski azkar erabiltzeari utzi ezean, akabo zibilizazioa. CDR hutsala da ez badugu drastikoki erregai fosilen menpekotasuna murrizten. CDR teknikak hondar-isurketak bakarrik konpentsatzeko erabili behar dira, ez luxuzko isurketak.

Arazaari garaiz eta seriozki ekin ezean, zenbat trilioi diru gastatu beharko dira mende erdi barru, XX. mendean dohainik gozatzen genituen klima eta ekosistemen sendotasuna berrosatzen saiatzeko? ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)





# Kristina Berasain

SAHARAREKIN KATEATUTA



## PALESTINAKOA IKUSITA, ZER EGINGO DU ORAIN MAROKOK SAHARAREKIN?



Arnas luzeko kazetaritza maite du Kristina Berasainek. Kazetaritza pausatua. Haimaz haima ibili da sahararrekin hizketan, kontakizunak eta testigantzak bilduz, gero horiek guztiak liburu eder batean harilkatzeko. Pasioz eta pazientziaz, ia 50 urte erresistentzian daraman saharar herria bezala.

 REYES ILINTXETA  IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA

### Zergatik murgildu zinen nazioarteko kazetaritzan?

Kazetaria naiz idaztea gustatzen zaidalako eta jakin-mina dudalako, mundua ezagutzeko jakin-mina. Oroitzen naiz 13-14 urterekin Carmen Sarmientoren *Los Marginados* ikusten nuela telebistan. Eta Rosa María Calaf kazetariaren erreportajeak [TVEko] *Informe Semanal* saioan. Gogoratzen dudan lehen objektua munduko bola bat da. Ohe gaineko apalean zegoen, txiki-txikia zen, eta denbora pila ematen nuen hari begira, herrialdeen eta hiriburuen izenei begira. Batzuetan erori eta bitan banatzen zen. Mailatuta zegoen. Munduaren metafora bat dirudi.

### Nola pasa zinen Lizarratik mundu zabalera?

Bilbon ikasi ondoren Lizarran hasi nintzen tokiko kazetaritza egiten *Egin* egunkarian. Bertako kronikak idatzi eta argazkiak ere egiten nituen. Karreteak La Estellesa autobusean bidaltzen nituen Iruñera 17:00ak baino lehen. *Egin*-en itxiera bizi izan nuen eta gero *Egunkaria*-rena. Iruñeko ordezkari izan nintzen ordezkapenak egiten eta duela 21 urte, itxi zutenean, *Berria* sortu arteko hilabete horietan sostengu kanpainak antolatzen eta kamisetak eta akzioak saltzen ibili ginen kazetariok herriz herri. *Egunkaria* ostegun batez itxi zuten eta astelehenean nintzen hastekoa *Mundua* sailean. *Berria*

sortzearekin batera hasi nintzen Andoingo erredakzioan, eta ordutik Donostian bizi naiz. Lau urtez eszedentzian izan naiz, eta orain hasi naiz berriro, *Bizigiro* sailean. Pozarren nago niretzat kazetaritza kalea zapaltzea delako, eta sail horrek aukera ematen dit elkarrizketa eta erreportajeak egiteko. Artean ez dut teletiporik irakurri. Fermin Leizaola elkarrizketatu berri dut, eta elurtegien inguruko erreportaje bat idatzi... Gustura ari naiz.

### Gehienetan gatazkan dauden herrietara zuzentzen duzu begirada?

Bai, hala da. Joera izan dut beti ertzei eta ahaztutako herriei begiratzeko eta esan-







# Kristina Berasain Tristan

LIZARRA, 1973



Ahaztutako gatazketan eta giza eskubideetan espezializatutako kazetaria da. *Berria*-ko *Mundua* saila zuzendu du urte luzez, eta orain, eszedentzia bat amaituta, egunkarira itzuli da. Hegoaldera eta ekialdera bidaiatzeko joera du eta askotan palestinarrek, kurduak, amazigak, errefuxiatuak eta bereziki, sahararren gatazkak hartu izan ditu hizpide. Saharako herria banatuta dagoen hiru eremuetara bidaiatu duen kazetari bakarretakoa da: lurralde okupatuetara, lurralde liberatuetara eta errefuxiatuen kanpalekuetara. *Mezuak Mendebaldeko Saharatik* dokumentalaren eta *Sahara, herri bat erresistentzian* liburuaren egilea da. Azken horrengatik aurten Argia saria irabazi du.

go nuke *Berria*-k toki berezia ematen diela gatazka horiei. Orain Gaza dago lerro-buruetan, baina gertatzen ari den genozidioa ez da berria. Oso atzetik dator, Saharako gatazka bezala. Palestinakoa eta Saharako isilarazitako gatazkak dira eta gauza asko dute amankomunean. Paralelismo asko egin litezke. Kolonialismotik eratorritako gatazkak dira, bi estatu okupatzaile ditugu eta horren aurrean erresistentzian ari diren bi herri. Bietan daude harresiak eta *apartheid*-a, eta bietan ari dira erabiltzen, edo erabili izan dute, napalm edo fosforo zuria zibilak bonbardatzeko. Israel eta Marokoren arteko konplizitatea erabatekoa da. Ez dugu ahaztu behar une honetan Marokok droneak erosten dizkiola Israeli lurralde liberatuetan dauden sahararrak bonbardatzeko.

## Eta biek Mendebaldearen sostengua jasotzen dute.

Hori da gure hipokrisia. Zibilizazioa deitzen dugun mundu honetan gero eta deshumanizazio handiagoa dagoela esango nuke, eta bi gatazka horiek bi minututan konpondu litezke, benetako borondaterik balitz. Nazioarteko zuzenbidea ezartzea baino ez da egin behar, baina argi dago interes ekonomikoak zintzotasun politikoen eta giza eskubideen gainetik jartzen dituztela. Sahararen kasuan ere oso nabarmena da. Nazio Batuen Erakundeak dozenaka ebazpen onartu ditu erreferendum bat egitearen aldekoak.

## Zergatik ez dute nahi?

Interes ekonomikoak daudelako. Gatazka guztien muina hori izaten da. Eremu hauetako baliabide naturalak bereganatu nahi dituzte. Palestinaren kasuan lurralde oso bat bereganatu du Israelek, ez soilik Gaza. Zisjordanian eta Jerusalemen ere palestinarrek kanporatzen ari dira, eta Marokoren kasuan ere oso garbi dago okupazio horren atzean espoliazioa dagoela. Mendebaldeko Sahara oso oparoa da arrantzan, adibidez. Hor esan behar da Europar Batasuna Marokoren konplizitatea dela, harekin arrantzarako akordio bat sinatu duelako. Bestalde, aire zabaleko munduko fosfato meatze handiena dago han eta petrolio, urrea... Sekulako inpunitatea dute. Israelgoa laborategi bat da erakusteko herrialde batek beste herrialde baten aurka edo zer egin dezakeela eta ez dela ezer ger-

tatzen. Europaren jarrera itzela izaten ari da. Kriminaren eskuetan gaudela pentsatzen dut batzuetan. Nire kezka zera da: Palestinakoa ikusita, zer egingo du orain Marokok Sahararekin?

## Zer uste duzu Espainiaren jokamoldeaz?

Bitxia da ikustea nola Pedro Sánchezek Israelen bi estatuen sorreraren aldeko mezua bidali duen eta, aldiz, biraketa bat egin eta Marokori Sahararen gaineko subiranotasuna aitortu dion. Espainiak jarraitzen du izaten potentzia administratzailea, eta sahararrek mila bider errepikatu duten bezala, erantzukizun politiko, juridiko, historiko eta morala dauka.

Brahim Gali, SEAD Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko presidentea joan den udaberrian elkarrizketatu nuenean horixe galdetu nion, biraketa honen arrazoiak, eta, esaten zidan hirugarren traizioa izan dela, labana bera zauri berean mugitzea. Aitortu zuen ez zuela jarrera aldaketa hori espero eta zerbait pertsonala egon zitekeela hor. "Espainiari dagokio argitzea, zerbait oso larria egon behar du, sekreturen bat, xantaiaren bat, presidentearen beraren nortasunaren edo ingurukoaren aurka". Halaxe esan zuen. Marokok hainbat gai erabiltzen ditu presio egiteko: Ceuta eta Melillaren auzia, islamismoa, immigrazioa... Askotan ikusi izan dugu nola Espainia "txintxo" ez denean Marokok bat batean mugak zabaldu eta hesietatik edo pateretan jendea pasatzen uzten duen. Hori presio mekanismo bezala erabiltzen dute. Saharar askok, aldiz, galdetzen dute Espainiari ez ote litzaiokeen gehiago interesatuko Mendebaldeko Sahara libre batekin akordioak zuzenean egitea, Marokoko diktaduratik at.

## Erresistentzian tinko ia 50 urte.

Bai. Erresistentziaren sinboloa eta quintasunaren paradigma dira. Mendebaldeko Saharan identitate ikur guztiak daude debekatuta, hasi hassania hizkuntzatik edo musika edo poesia, dena debekatuta dago, baita adierazpen askatasuna ere. Haima bera ere bai. Hala ere, lurralde okupatuetan itzela da erresistentzia eta bereziki emakumeena. Sultana Khaia, adibidez, 557 egunez eduki zuten bere etxean setiatuta. Militarrak, paramilitarrak eta jendarmeak bere etxera sartzen ziren, kolpatu eta torturatu egiten zuten,





eta baita bortxatu ere, bere ahizpa Uara bezala, haien amaren aurrean bortxatu zituzten biak, eta, hala eta guztiz ere, Sultana egunero ateratzen zen bere etxeko teilatu laura Saharako ikurra astintzera.

### Zenbatekoa da Saharako populazioa?

Zaila da kopurua zehaztea, azken batean zatituta dagoen herri bat delako. Marokok 1975ean Mendebaldeko Sahara okupatu zuenean askok ihes egin zuten basamortutik eta exodo horretan Aljeriako Tindufen babestu ziren, baina beste asko Mendebaldeko Saharan gelditu eta gaur egun arte irauten duen jazarpena jasaten ari dira. Asko eta asko kartzelan edo desagertuta egon ziren. Emakume batzuk hamasei urtez egon ziren desagertuta. Kartzelatik atera zituztenean euren seme-alabak ez zituzten ezagutzen. Senarra beste emakume batekin ezkondu zegoen. Kontakizunak latzak dira...

**Beste batzuk kanpalekuetan bizi dira.** Aljeriako errefuxiatuen kanpalekuetan 180.000 inguru bizi dira, edo biziraun dute, hobe esanda. Basamortuen basa-

mortua da hura, *hamada*, aurretik inor bizi ez zen leku idorra. Zerua goian eta hondarra azpian. Behin-behinekoa behar zuen egoera betikotu egin da eta, hala ere, iraultza egin eta estatu bat sortu dute han. Fronte Polisarioak askapen mugimendu nazional bat izaten jarraitzen du.



**“Israel eta Marokoren arteko konplizitatea erabatekoa da. Une honetan Marokok droneak erosten dizkio Israeli sahararrak lurralde liberatuetan bonbardatzeko”**

### Eta gero harresia dago.

Bai. Mendebaldeko Sahar bitan dago banatuta. 2.700 kilometroko harresi militarrek, munduko luzeenak, zatitzen du lurraldea. Horren hegoaldean dauden lurralde liberatuetan orain arte nomadak bizi ziren, game lu eta haimekin beraien bizimoduari nolabait eusten ziotenak. Hodeien seme-alabak dira, baina duela hiru urte hasi zen gerrak arriskuan jarri du behinolatik datorren bizimodu hori. Maroko dronekin bonbardatzen ari da lurralde liberatuak eta Tindufura ihes egin behar izan dute babes bila. Bigarren Nakba bat gertatzen ari da, bigarren exodo bat.

### Gazteak engaiatuta daude borrokarekin?

Erabat. Erresistentzian dagoen herri bat

da. Mendebaldeko Sahara Afrikako azken kolonia da. Espainiaren traizioaren ostean, okupazioa etorri zen, eta gero exodoa. Lehenengo gerra hamasei urtez luzatu zen, gero 29 urtez egon ziren ez bake-ez gerra egoeran, eta duela hiru urte gerrara itzuli ziren. Gazteek, nazioartearen axolagabekeriaren aurrean, urteak zeramatzen gerra aldarrikatzen.

### Nolako ia izan zen zure lehen bidaia Aaiunera 2005ean?

Kazetaritza herrialde baten demokraziaren neurgailua da. Marokok dozenaka kazetari eta begirale kanporatu ditu. Ez ditu lekukoak nahi. Ni lehenengo aldian nahiko xalo joan nintzen. 2005ean Intifada egiten ari ziren eta iristen zen informazioa oso eskasa zen. *Berria*-k erabaki zuten norbait bidaltzea. Hegazkinetik jaitsi bai baina gero lau bat ordu eduki ninduten gelaxka ziztrin batean, Mohamed VI.a erregearen erretratu baten azpian. Poliziak etengabe aritu ziren galderak egiten, harik eta nitaz aspertu eta hegazkinera indarrez eraman ninduten arte. Agadirren Espainiako Kontsulatuko ordezkariak nituen zain. Martxelo Otamendirekin hitz egiteko aukera izan nuen gela hartatik.

Handik hamar urtera lortu nuen Aaiunen sartzeari Donostiako Udaleko delegazio batekin. Aminatu Haidar giza eskubi-



deen ekintzaile ezaguna gure hegaldi berean zihoan. Aaiungo alkatea bera etorri zen aireportura harrera egitera. Esan zigun lehen gauza izan zen ezin genuela independentistekin elkartu, argi zekienean horretara gindoazela. Polizia denbora guztian atzetik eduki arren, bost egun horietan hogeitaz bilerak baino gehiago egin genituen ekintzaileekin.

### Emakume batentzat zailagoa da ibiltzea gatazka gune hauetan?

Sekula ez naiz gerra batean izan. Gervasio Sánchezek esaten du gerrak ez direla amaitzen Wikipediak esaten duenean. Makropolitika edo geopolitika baino gehiago interesatzen zait gatazkek herritarrengan sortzen dutena kontatzea. Nik ez dut arazorik izan bidaiatzean. Bakarrik bidaiatu dut beti eta esango nuke kasu batzuetan errazago iristen zarela kontakizun batzuetara, emakume sahararrengana, adibidez. Niretzat altxor bat izan da, kanpalekuean haimaz haima ibiltzea eta tea edan bitartean emakumeen kontakizunak entzutea.

### Harreman berezirik ba al dago Euskal Herria eta Sahararen artean?

Baietz uste dut. Hemen ere bizi izan ditu-



gu diktadura eta errepresioa, eta esango nuke egoera berean dauden beste herriekiko gertutasun hori sumatzen dela. Euskal kulturak eta Saharakoak badute antzekotasunik: biak ahozko tradizioz datoz, bietan daude bertsoak, edo irrintziaren antzeko oihua, *ezgharrit*-a, edo auzolana... Julio Caro Baroja izan zen han ibili zen lehen euskal herritarra eta sekulako lan antropologikoa egin zuen. *Estudios saharianos* (Saharako azterlanak) ezinbesteko liburua da. 500 orrialdetan kontatzen du haimak nola zutitzen diren, zenbat atal dituzten, dromedario hitza hassanieraz nola esaten den bederatzi modutan... Gerra hasi arte hemengo arkeologoak joan izan dira eta beste erakunde asko lan itzela egiten ari dira: Euskal Fondoa, Hegoa Institutua edo Mundubat, besteak beste. Sahararrak oso eskertuta daude badakitelako badagoela nolabaiteko konplizitate bat bi herri hauen artean. Gainera, Oporrak Bakean programak lotura politik bultzatu ditu hango eta hemengo familia askoren artean.

### Nortasunaren aldetik, nolakoak dira?

Oso herri berezia da. Harrotasun puntu bat daukate eta magnetismo berezi bat. Duintasun ikaragarria dute. Zaila da herri bat definitzea, baina niri asko

gustatzen zait lehen pertsona hitz egiteko daukaten errezeloa. Saharar bati eskatzen badiozu bere bizitzako pasarte bat kontatzeko, gerrakoa edo exodokoa, adibidez, beti esaten du "niri gertatu zaidana ez da beste saharar batzuei gertatu zaiena baino okerragoa". Arreta deitzen dit horrek. Herri gisa mintzatzen dira.

Erresistentzian dagoen herri bat da eta denbora neurtzeko beste tempo bat dute. Beraientzat lehenetsuna da egunen batean askatasuna lortzea eta ez hori noiz etorriko den. Ez dute denbora neurtzen gure parametroekin. Akaso basamortuaren izaerarengatik izango da. Badago esaera zahar bat esaten duena itxaroten dakienari itzala iritsiko zaiola. Gure mundu azeleratuan kosta egiten zaigu jarrera hori ulertzea.

### Liburuaren aurkezpen asko egiten ari zara. Pozik zaude harrerarekin?

Oso. Argia sariak balio izan dit are gehiago ezagutzera emateko. Nomada bezala ibiltzen naiz herriz herri liburua aurkezten, haima muntatu eta desmuntatu. Ederra izaten ari da. Lehengoan Arrasaten 25 emakume saharar etorri ziren haien *melhf*-ekin, soinekoekin, hunkituta.

**Sahararrek denbora neurtzeko beste tempo bat dute: lehenetsuna da egunen batean askatasuna lortzea eta ez hori noiz etorriko den"**

**Egun hauetan Donostian errefuxiatuen inguruko erakusketa batean zure testuak ikus ditzakegu, ezta?**

Bai. *Ihesa zilegi* balitz erakusketa proiektu eder-rra bezain latza eta beharrezkoa da. Gari Garaialde eta

Javi Julio argazkilarien ekimena da, eta asko eskertzen diet nigan jarritako konfiantza. Bidasoan gertatzen ari dena aurrez aurre jartzen du kaleko erakusketa honek. Lehen kanpora joaten ginen migrazioaren inguruko erreportajeak egitera, baina orain hementxe dugun errealtatea da. Bulebarrean egongo da apirilaren 7ra arte.

### Hurrengo bidaia?

Embarka Brahim Bumajrutari liburua eramatera joan nahiko nuke. Bera da liburuaren azalean agertzen den emakumea: Fronte Polisarioa bere etxean sortu zen, eta bere bizitzaren bidez bere herriarena kontatu daiteke. Oso emakume estimatua da, sahararren ama, bizirik dagoen mito bat. ●

**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

Erilago industrialea 21, HERNANI | 943 55 25 12 - 16  
info@talleresmitxelena.eus | www.talleresmitxelena.eus





## Gerra danbor hotsak Europako Batasunean



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

Urtebete pasa da Mendebaldeari Ukrainako gerra okertu zitzaionetik. Xakean esaten da jokalaria bat *zugzwang* posizioan dagoela egin dezakeen edozein mugimenduk kaltetuko badu. Mugimendurik egin beharko ez balu berdinketa lortuko luke, baina bere txanda bada, bereak egin du.

2024an Ukrainak gerra fronteari utsiko balio, Bruselak ez luke mugimendurik egin nahiko. Baina Kievek ez du eusteko gaitasunik, ez gutxienez Ukrainak gizon eta arma eskasiarekin jarraitzen duen bitartean. Horregatik, Mendebaldeari fitxa mugitzea baizik ez zaio geratzen: kapitulazio kutsua duten negoziatioetara joaz, edo frontearen leerroa kolapsatu ahala gerran eskalatuz.

EBko politikari eta gobernu gehienen adierazpenei kasu egiten badiegu, badirudi Errusiaren kontrako gerra inoiz baino gertuago dagoela. Posibilitate honekin bonbardatzen gaituzte hedabideek egunerok: normaldu dezagun gerra agertokia eta gastu militarren igoera AEBen mesedetan. Hautua eskalatzea da. Emmanuel Macron-ek garbi adierazi du errusiar armadak aurrera egiten jarraituko balu Ukrainara soldaduak bidaltzeko prest egongo litzatekeela. Mugimendu hori ere, baina, Brusela dagoen *zugzwang* posizioagatik, galtzailea da. EBk bizi duen krisi sozioekonomikoari galera humanoa eta materiala erantsi beharko litzazkioke. Ez aipatzeagatik gerra nuklear posible baten agertokia.

Mendebaldea  
pribilegioak galtzen  
ari den une honetan,  
Europako gizartea  
kulturalki inoiz baino  
kolonizatuago ageri da  
Washingtonetikiko

Halere, badirudi ez duela axola, izan ere, EB tematuta dago bere interesen kontrako erabakiak hartzen. Baina hori nola izan da posible? AEBek Europan duten hegemonia kulturalari esker.

Superpotentzia baten hegemonia eraikitzeke prozesuetan lau dimentsiok jarduten dute: ekonomikoa, militarra, politiko-diplomatikoa eta kulturala. Lehenengo biek hegemonia materiala segurtatzen dute. Eraikuntzaren oinarria eta motorra ekonomikoa da, horren gainean indartze militarra dator. Halere, epe ertain eta luzean hegemoniari eusteko dimentsio politiko-diplomatikoa garatu behar da. Nagusitasun politiko eta diplomatikoa nagusitasun ekonomikoa eta militarren azken adierazpena da, subalternoeke menpeko egoera onartzen dute pragmatismoagatik. Halere, ahal duten heinean autonomia bilatzen dute. Horregatik, EBk autonomia strategi-

koaren beharraz hitz egiten zuen edo Washingtonek, besteak beste, Merkel eta Hollande espiatzen zituen, ustezko aliatuen artean intentsitate baxuko gerra ekonomikoa bat zegoelako.

Epe luzean menperatuak otzan mantentzeko beharrezkoa da hegemoniaren dimentsio kulturala garatzea. AEBek hasieratik ondo jakin dute indar finantzarioa hegemonia kulturala eraikitzeke baliatzen: ikus-entzunezkoen industrian, hedabideetan, unibertsitateetan, GKEetan eta, oro har, beste herrialdeetako burmuin eta etorkizuneko eliteen kooptazioa eginda. XXI. mende hasieran AEBen gainbehera ekonomikoa hasi zenean, hegemonia kulturalaren gailurre-ra iritsi ziren.

Mende berriak aurrera egin ahala, iparramerikar nagusitasun kulturala higitzen hasi zen periferietan; aldiz, piztiaren bihotzean, Josep Borrellek lora-tegia deitzen duen horretan, indartzen jarraitu zuen. Horregatik, Mendebaldea pribilegioak galtzen ari den une honetan, Europako gizartea kulturalki inoiz baino kolonizatuago ageri da Washingtonetikiko. Disonantzia kognitiboaren tamaina hain da handia, Europa kaltetuz AEBen interesen esanetara ari garela onartu baino nahiago dugula esatea demokrazia, feminismoa, ekologismoa, giza eskubideak, adierazpen askatasuna edo nazioarteko legedia defendatzen ditugula gerrak bultzatuz, gerrak eginez, edota genozidioak babestuz. ●



# Gure ardura



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA



DOM CAMPISTRON

**E**mazteen eskubideen aldeko egunaren bezperan idazten ari naizenez zutabe hau, zenbait gogoeta heldu zaizkit burura. Aitzinamendurik izan dela ez da dudarik (azkenetarik izan daiteke Frantziako Gobernuak abortua konstituzioan sarrarazteko erabakia), baina kezkatzekoa ere badugu, Simone de Beauvoirek zioen bezala, krisi uneetan bereziki emazteen dretxoak direlako lehenetarik erasotzen direnak. Haur klaseetan, ohargarri da ikasleek barneratu dutela politikoki zuzena den berdintasun diskurtsoa. Bizkitartean, eleen ondoan, jokamoldeak ez dira erabat aldatu, aire hartze denboran: mutikoen eremuaren bi herena okupatzen dute, futbolarekin edo pilotarekin, neskak soka saltoan ari direlarik aterpean. Egia da, halere, neska batzuk ausartzen direla mutikoen ibiltzen; alderantzizkoa, nekeago da. Ezagutzen dudan irakasle-gai batek egin saio experimental batean, hauxe idatzi zuen ume batek: “Lehen baino zailago da mutiko izatea”. Erranaldi hori bi zentzutan har daiteke: gero eta nekeago zaie, gizonezkoek, beren maskulinitate zapaltzailea erakustea, eta hori seinale ona da; edo ez da erraz gizontasun klixeeetatik kanpoko ibilmoldea onartzea, mutikoa edo gizona zarenean. Hain zuzen ere, iruditzen zait trufaga-

rriagoa dela, jendartean, soka saltoan ariko den mutikoa, xuriketak hedatuko dituen gizona, negar eginen duena, egur mozten edo enbrage aldatzen ariko den neska baino, sentiberatasunik agertuko ez duen emakumea baino.

Azken datu orokorrek diote sexismoak gora egin duela, bereziki gazteenengan. Frantziako Emazte eta Gizonen arteko Berdintasunaren Goi Batzordeak 2024ko urtarrilaren 22an plazaratu txostenaren arabera, matxismoa indartzen ari da: emazteen askatasunari buruzko pasibotasuna, gorrotoa eta ukatzea gorantz doaz. Zer egin? Familiak hobeki hezi, emazteen presentzia erregulatu eta portaera jasangaitzak zigortu, du erantzuten txostenak. Sekulako erronka, bistan dena, egitura publikoendako, eta gu bakoitzarendako.

Eredugarri iruditzen zait, adibidez, Alemaniak 2022ko Deutscher Buchpreis sari ospetsuaren bidez sariztaturiko *queer* eleberri bat, Kim de l’Horizonen *Blutbuch*. Obra horretan, autoreak bere familiaren genealogia femininoa egiten du, goretsiz bere amatxi, etengabe konparatzen duela itsas fluidoari. Hizkuntza harrigarria asmatzen du idazleak, genero neutroa markatzeko kode bat erabilia, estilo berritzaile txundigarrian. Urrun gara, hemen, idazkera

inklusiboari buruzko ohiko eztabaidaz: literaturari esker du irudikatu aterabidea Kim de l’Horizonek. “Nehoz ez genioke Goncourt saria emanen horrelako ausart bati!”, zioen, oro har, kritika frantsesak, aski lan izan zuelarik Annie Ernaux omentzeko, Nobel saria erdietsi zuelarik. Beren ardurak ez dituztela erakundeek denetan hartzen...

Arrunt beste gisa batez, emazteen defendatzeko norbanakoaren ardurak bultzatu du, parte, Bea Salaberri idazlea *Mesfida zaitetz* eleberria plazaratzera, Txalaparta argitaletxean. Hamar bat urtez ondu duen epopeia domestiko horretan, nehoiz ikusgarritasunik izan ez duten emazteei protagonismoa eskaintzen die, hau da, ETA laguntzen engaiatu zirenak, Iparraldean, erakunde kideak aterpetzeraino, isiltasun handiengan. Liburua martxoaren 6an atera denez Ortzazeko Menta liburutegian egin aurkezpen ofizialean, ez dut irakurria, eta, dena den, lagunaren obraz erran nitzakeen ele goxoak susmagarriak lirateke –adiskidearen lana kritika ezina daitekeelako...-. Ez dut dudatzen, haatik, frankok irakurriko duzuela nobela hori, eta autorearekin lagun ez izanagatik ere gozatuko duzuela, gure historia hurbila zorrozki finkatzen duelako, generoez haratagoko memoria kolektiboan. ●

## Katalunian protesta, hemen paso



**MIKEL BASABE  
KORTABARRIA**  
IRAKASLEA

**K**ataluniako Hezkuntza Sailak (ERC) bertako ebaluazio diagnostikotik ahozko proba kentzea erabaki zutenean, segituan altxa ziren horren kontrako ahotsak: Junts alderdiak, Inter-sindical sindikatu independentistak eta Plataforma per la llengua eragile sozialak ikasleen ahozko gaitasuna neurtzea eskatu zioten Kataluniako Gobernuari.

Normala ere bada, ezta? Ahozkoa neurtu barik ez dago ikasle baten komunikazio-gaitasuna neurtzerik, ezta? Ezta?

Gurean bai. EAEn, ikasleen komunikazio-kompetentzia ahozkoa neurtu barik zehazten da: “Beraz, esan daiteke derrigorrezko eskolatzea amaitu duten ikasleen ia %80k euskarazko kompetentzia nahikoa dutela komunikatzeko eta hizkuntza horretan ikasten jarraitu ahal izateko”. (2022ko etapa amaierako ebaluazio diagnostikoa, 41. orrialdea). Baina “Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren Mintzamina dimentsioa ez da ebaluatu eta Idazmina dimentsioa hizkuntza-komunikazioko hiru kompetentzietatik bitan bakarrik ebaluatu da” (22. or.).

Hezkuntza Sailaren curriculum-dekretuak (77/2023) definizio hauxe ematen du: “Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziak esan nahi du ahoz, idatziz edo (zeinuz) modu koherente eta egokian jardun behar dela”. Dekretu horretako 41. artikulua agintzen duenez, “diagnos-

tiko-ebaluazioko prozesuen helburua da ikasleek funtsezko kompetentzietan eta kompetentzia espezifikoetan lortutako maila egiaztatzea”. Ahozkoa neurtu barik, ezin ikasleen hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia egiaztatu.

Katalanez bezala, gurean ere behin baizik ez da neurtu DBH 4ko ikasleen mintzamen-gaitasuna euskaraz: HABEk, 2018an. 1.000 ikasle izan ziren, B2 maila neurtu zitzairen eta, nik dakidala, emaitzak ez dira argitaratu. Bitxia da 2022ko Ebaluazio Diagnostikoan horixe dela propio aipatzen den hizkuntza maila bakarra: HABEk ahozko B2 neurtu zuela; 2022an idazmina eta ulermenak neurtu ziren, baina ez da argitzen B1 maila izan zen, B2, tarteko zerbait...

Ez da, ostera, bitxitasun bakarra: 2017an, DBH 2ko ikasleen %45,6k zeukan maila apalena euskaraz; 2018an, DBH 4ko %27,7k; 2019an, DBH 2ko %47,9k. 2021ean, ehunekorik ez, baina: “Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia nabarmen jaitsi da”; 2022an, ikasleen %20,8 maila apalenean. Urte batetik bestera, ikasleen %20k lortzen ei du maila apalenetik egokira pasatzea.

Hasierara bueltatuta: Katalunian, protestatuta, lortu dute gobernuak atzera egin eta ahozko kompetentzia ere neurtzea aurtengo ebaluazio diagnostikoan. Gurean? Animatuko gara protesta egitera? ●

## Zapi morea



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**A**ndre zahar dotorea senarraren besotik zihoan gurutzatu ginenean. Bistaz ezaguna, oker samar zegoela ikusi nuen, adinaren ajeak. Benetako señora eibartarra: perlazko lepokoa; ilea kardatuta harro-harro, ostirala izanda, ile-apaindegian goizean egon zela ezagun zuen. Gure herrian edade batetik gorakoen artean itxura oso arrunta.

Horregatik, nire begirada saman zeroan zapi moreak erakarri zuen. Perlen gainetik jarria, jaietako painelua zirudien, korapilo batekin lotuta. Martxoaren 8a zen, eta espaloian topo egin genuenean, manifestaziorantz nindoan. Irri-

baireta eta poza eragin zizkidan zapiak.

Zuotako askok pentsatuko duzue hai-zeak Martxoaren 8a “ospatzera” jotzen duenez jantzi zuela zapia, baina hori ez dela feminismoa. Egia izan liteke, eta agian ez da feminista izango emakumea.

Baina ederra iruditzen zait *establishmentaren* parte diren —edo izan diren— andrazko horiek kontzientzia hartzea, eta konturatzea Martxoaren 8an badutela zerbait aldarrikatzeko, lau haizeetara esateko emakumeak direla, eta harro daudela horregatik.

Kontzientzia hartzeko ez da inoiz berandu, zapi morea jantzeko ere ez. ●



# Barbie hauteskundeetan



**ANUNTXI ARANA**  
ANTROPOLOGOA

**A**rropa bera luzaz eramatea ez da ongi ikusia, eskasa-edo dateke. Behin, lagun irakasle bati lizeoan ohartarazi zioten bazela ordua jaka berria eros zezan. Aspaldiko joera hori indartuz joan da. Telebistako esatari eta berriemaileek jantzi desberdinak luzitzen dituzte egunero. Mikel Aiestaran salbuetsia dela ematen du (biba!), baina susmoa dut emakumeak behartuak direla oinak sartzeko metatartsoak martirizaten dizkieten takoi-zapatetan.

Politikari anitzek ere biziki zaintzen dute kanpo itxura, modari kartsuki jarraikiz. Ulertzen da, denen eskubidea da dotore eta pinpirin azaltzea. Aldiz, ganoragabekeria da etengabe arropa estreinatzen ibiltzea, eta halako ohitura dute Hego Euskadiko politikari zenbaiten –zoritzarrez emakumeek gehiago ezagun dute–. Batzuetan Barbie oroitarazten dute, propio soinekoa aldatzeko pentsatua den panpina. Eskuinekoak bakarrik balira, gaitz erdi, gauzen ordenuan lirateke. Kezkak hasten dira antzeko jaidura hautematen denean hainbat abertzale, ezkertiar, aurrerakoi jenderengan. Eta fenomenoak bere goieneko

Ikusiko al dugu  
hauteskunde kanpaina  
bizpahiru jantzitan  
egiten duenik?  
Bizitza ez baita  
Barbilandia, eta mundu  
erreal honek ez dezake  
gehiago moda  
azkarra eraman

mailara iristen da hauteskundeetako ekitaldietan, modelo erakusketa bilakatuak.

Esango digute maileguz hartuak direla jantzi horiek eta, bota gabe, berriz salmentako zirkuituan sartzen direla. Pena da bigarren eskuko merkatua ere kontsumoa delako, berkontsumoa eta, batez ere, ez duelako estereotipotik ateratzen eta soinekoz aldatzeko irrika

konpultsiboa galarazten; aitzitik, hartara daraman eredia irauaraz lezake.

Finean, *Black Friday*-etako frenesiak ez du etenik, haren aurkako salaketak alferrik urtzen dira eta suntsiketak aurrera segitzen du. Arropa berriari bide emateko, zaharra ez dena ere armairutik hustu eta badoa Afrikara edo Amerikara, zabortegi munstroak betetzera. Ez hori bakarrik. Moda industriak lehenik langileen esplotazio ankerra praktikatzen du, batik bat emakumeena; eta gero planetako punta batetik bestera arropa garraiatzeko erabiltzen dituen hegazkinen berotegi efektuko gasen %8 botatzen dute atmosferara, ARGIAko 2851. zenbakian azaldu zen bezala.

Munduko agintariek ez dute gehiegikeria horiek geldiarazteko itxurarik. Baina, modaren erabiltzaile gisa, emakumeen erantzukizuna ere da sistema horri uko egitea, bereziki publikoki agertzen direnena, besteentzat eredu emaile baitira. Ikusiko al dugu kanpaina bizpahiru jantzitan egiten duenik? Bizitza ez baita Barbilandia, eta mundu erreal honek ez dezake gehiago moda azkarra eraman. ●

**DATU PERTSONALEN BABESA**  
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen  
lagunduko dizugu



**SIGACUS**

© 943 453 588 · www.sigacus.com



**LUA** arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA  
www.luark.com  
948132697 - Arga ibai kalea 28-30 Irutia



MANU ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

**ARGIA**

**LIBURUA SALGAI!**  
14€

**AZOKA.ARGIA.EUS**  
943 37 15 45



# Euskara ikaslea zara?

Bide horretan lagundu nahi  
zaitugulako, ARGIA urtebetez  
doan bidaliko dizugu.

Gauza bakarra egin behar duzu:

**korrika**-k iraun bitartean

email bat idatzi

**komunitatea@argia.eus**-era





LIBANO

# INORK NAHI EZ DUEN GERRA SAIHETSEZINA

Hezbollah, Ekialde Hurbileko miliziarik boteretsuena, Libanoko lurretatik Israeli eraso egiten hasi zen, Gazako sarraskia hasi eta biharamunean. Palestinari elkartasuna adierazteko bigarren fronte honen etorkizuna Zerrendan gertatzen denarekin lotuta dago. 91.000 lagun inguru barne desplazatuak dira eta hildakoak dozenaka dira.

**B**onbak igande goizean hasi ziren erortzen, Gazaren aurkako erasoaldia hasi eta biharamunean. Ali Farhatek eta bere familiak ondo zekiten horrek zer esan nahi zuen. Maletak azkar egin, botikako pertsiara itxi eta autora igo ziren, otoitz egin bitartean beren etxea eta oroitzapenak israeldarren eraso baten hondakinen azpian lurperatuta gerra ez zitezen.

Libanok Israelekin duen muga, 130 kilometroko kalapita, bakeaz ezer gutxi dakien lurraldea da. Lerro Urdina gisa ezaguna da banaketa hori. 2000. urtean Nazio Batuek behin behinean marraztu zuten, Libano hegoaldearen inbasio israeldarraren amaierarekin batera, gerra zibilarekin hasi eta 18 urte iraun zituen.

Garaipen hark, herrialdearentzat ez ezik mundu arabiararentzat ere Hezbollahren autoritatea sendotu zuen, erresistentziaren buru izan zena. Milizia Ekialde Ertaineko boteretsuena da gaur egun. Hamasen aliatua da Jainkoaren Alderdia –arabieratik itzulita– eta kohe-teak jaurtitzen hasi zen 2023ko urriaren 8an Shebaa eta Kfarchoubaren kontra, Israelek okupatuta dituen Libano barruko zonaldeak.

Gazakoaz gain, bigarren gerra fronte hori "Palestinari elkartasuna eta babesa" emateko ireki zuten, Hezbollahko buruzagi Hassan Nasrallah bere hitzaldi guztietan errepikatzen duenez. Israelen hiru dibisio militar daude Libanoko muga, bestela soldadu horiek guztiak Gaza sarraskitzeko lanetan arituko ziren, azpimarratzen du Sayyed-ek, buruzagi islamiarak.

Telebistan eskaintzen diren bere hitzartzeen bidez, inork ez baitaki fisikoki non dagoen, Nasrallah *de facto* bihurtu da Erresistentziaren Ardatzaren bozeramaile, Irango Erregimena buru duen milizien taldekoa, Yemenen, Iraken eta Sirian ere presentzia daukana, kausa palestinarren alde egin dutenak, nahiz eta gehienak fakzio xiitak izan.

Borrokak mugaldera mugatuta daude, idatzi gabe dauden arau batzuek eutsita, baina Libanoko aldean gerrak 50 zibil baino gehiago hil ditu jada, tartean hiru kazetari; Hezbollahko 250 borrokari eta ia 91.000 pertsona beren etxea eta herria uztera behartu ditu, Nazio Batuen arabera.

Azpiegituren suntsiketak milioi askoko galera eragin du, eta oraindik goiz da nekazaritza laborantzan eragindako kaltea neurtzeko, hegoaldeko biztanleriaren bizimodu nagusia dena. Israel

## Ramez Najdik

nekazaria:

"Borrokan bizi gara,  
palestinarrak bezala.  
Ez dugu gure lurra utziko,  
ezta gure armak ere"

olibondoak, tabakoa eta fruta-arbolak pozoitzen ari da fosforo zuriko bonbak jaurtitzen. Substantzia kimiko hori gune zibiletan botaz gero, gerra krimena izan daiteke.

"Borrokan bizi gara, palestinarrak bezala. Ez dugu gure lurra utziko, ezta gure armak ere", dio 66 urteko Ramez Najdik, nekazaria, Srifan, Libanotik 20 kilometrora dagoen herri batean. Nahiz eta bere emazte eta semeek desplazatu zuten zentro batera ihes egin duten Tiorora, hegoaldeko kostaldearen lerroan lehen hiri handira, berak tinko eusten dio: sorlekutik alde egitea bere jendeari uko egitea litzateke, "benetako *moqawama*", dio.

Israelen aurkako erresistentziari erreferentzia egiteko arabierazko terminoa da *moqawama*. Hezbollahren gidaritzapean monopolizatua, gehiengo xiita duen hegoaldean gotorleku nagusietako bat duena, Najdik termino hori bere egiten du hamarkadatan gatazkaren dina-

mika bortitzen pean bizitzera ohituta egon den biztanleriarentzat.

## EKIALDE HURBILA LEHERRAZI LEZAKEEN GERRA BATEN MUGAK

Libanok arnasari eutsi zion erasoaldiaren lehen egunetan, buruzagien isiltasunak bere buruari erantzun zion arte: inork ez du nahi gerra saihestezin hau. Nasrallah hiru aste behar izan zituen bere lehen hitzaldia emateko. Xehetasun hori ez dator bat 2006ko gerran izan zuen hitz-jario azkarrarekin, Hezbollahren eta Israelen arteko azkeneko gatazkan.

Miliziaren sorrerako arrazoia Israelen suntsipena da. Hamasekin koordinatutako erasoan faltak, etsaia ustekabe harrapatuko zukeenak, zalantzan jarri zuen konpromiso hori. Nasrallah hitz egin zuenean, jakina zena berretsi zuen: gerra Libano hegoaldean zegoela, eta horrekin nahikoa zela, foku nagusia Gaza dela.

Itxurazko moderazio horren arrazoietakoa bat Iranen eraginarekin lotuta dago; izan ere, "ez dirudi eskala handiko gerra nahi duenik", nabarmendu du David Woodek, International Crisis Groupeko analistak. Nasrallah Erresistentziaren Ardatzeko milizia bakoitzen independentzia azpimarratzen duen arren, Gazaren aurkako erasoaldi hau Israel eta AEBen eta Iranen arteko tentsioen estrapolazio gisa uler daiteke. Hezbollahren parte-hartze handiagoak Erregimen Islamikoaren eskualdeko aktibo nagusia higituko luke, eta Israelen balizko eraso zuzen baten aurrean bere babesa eta blindajea ahuldu.



Hamaseko komandante Saleh al Aroui-ren hilketa Beiruten, sionistek drone baten bitartez egindakoa.





Hezbollah-ko buru Hassan Nasrallah-ren diskurtsoa, Saleh Al Arouiren hilketaren biharamunean.

© MARTA MAROTO

Gainera, indarkeriaren igoerak ez luke onarpen handirik izango Libanon, herrialdeak ezin baitio gerra bati heldu. Lurrikara politiko eta finantzarioen ondoren, Irak %90 inguruko debaluazioa jasan du eta libanoarren %80 pobrezia-aren indizearen pean bizi da. Herrialdeak oreka prekarioan eusten dio bere buruari, kanpotik egindako diru-bidalketei eta shock-etara ohituta dagoen biztanleriaren erresilientziari esker. 2019ko Iraultzaren ostean *-Thawra-* finantzia-sistemaren lapurreta etorri zen, bankuek gizarte-ezegonkortasuna baliatu zuten herrialdeko funtsak husteko.

Koronabirusak protestak kaiolatu zituen, eta jendea nagiak astintzen hasi zenean, berriz ere ustelkeriak Beiruteko portua leherrarazi zuen. Umore-sen jakin bati eta kideasun sektarioan oinarritutako sistema baten sare klientelarrari esker eusten dio biziraupenari biztanleriak, egunean egun bizitzea beste aukerarik ez duena.

AEBek ere ez diote, orain arte, argi berdea eman Israeli. Hezbollah ez da Hamas. Miliziaik, Libanoren barruan estatu paralelo baten antzera jokatzeko duenak,

100.000 kide baino gehiago ditu, eta Israelen aurka borroka daiteke parez pare. Ipar Amerikako herrialdean hauteskunde lasterketa hastear da Ukrainan eta Ekialde Ertainean suteak dituen bitartean, eta jakitun da muga horrek eskualdera ekar lezakeen suntsipenaz –eta, ondorioz, Israeli eman beharko liokeen babes finantzarioaz–.

Horregatik, fronte hori mantendu da idatzitako gabeko arau batzuetara mugatuta. Libanoko hegoaldean eta Israelgo iparraldean gertatzen ari den gerraren intentsitatea ebaluatzeko irizpideetako bat da erasoan distantziaren arabera. Eguneroko enfrentamenduak Lerro Urdinetik bost kilometroko tartean gertatzen dira, eta gehienek base eta posizio militarrik dituzte helburu.

Higadura-gatazka hau "disuasio-orekan" oinarritzen da: hau da, eraso berriak prebenitzea norberaren suntsipen-gaitasuna erakutsiz, etsaiak indarkeria areagotuz gero zer kalte egin dezakeen adiztera emanez.

"Hezbollahen armen beldur izatea mehatxagarriagoa da Israelentzat, Hezbollah armak benetan erabiltzea bai-

no", azaldu du Woodek. Eta joko-arau arriskutsu horien barruan eutsi egin zaio gerrako eskaladari, askotan lehertzear egon bada ere.

Gerra zuzena 2024 hasieran egon zen gertuen, Israeliek Saleh Al Arouri Hamaseko bigarrena hil ondoren, Beiruten, frontearen lerrotik 100 kilometrorra. Dahien eginiko erasoarekin, Hezbollahen kontrolpean dagoen auzoa, Israel bete-betean sartu zen gerraren fase berri batean, Erresistentziaren Ardatzeko kide esanguratsuen hilketa selektiboan oinarrituta.

Milizia erradikal islamikoaren esku geratu zen gatazka mugatuta mantentzearen ardura. Aste hartan herrialdean bizitako tentsioak gogora ekarri zuen gatazkaren lehen asteetako ziurgabetasuna. Libano Nasrallahen erabakiaren zain zegoen, zeinaren odol eta mendeku erretorika urrun geratu zen kalkulaturako erantzunetik. Sutea ekidin zen.

Beiruteko atentatuaren ondoren, leherketak izan dira Sidon inguruan, frontetik 50 kilometro baino gutxiagora, eta berrienak Baalbek hiritik gertu gertatu dira, Libanoko ipar-ekialdean.

"Eskalada mugatuta eta kontrolatuta



Hezbollah kontrolatutako Beiruteko Dahie auzoan, miliziako jarraitzaileek Palestinarekin elkartasunez egindako mitin bat.

dago gerraren logikaren eta arauen barruan. Geografikoki ere, akzio-erreakzio printzipioek arautzen dute", dio soraio Hassan Ezzedinek, Hezbollahen Erresistentziarekiko Leialtasuna bloke parlamentarioko diputatuak.

Liskarren hasieratik errepikatzen den eslogana da alde bakar batek ere ez duela gerrarik nahi. Hala ere, hau azaldu dio Ezzedinek ARGIAri: "Erresistentzia prest dago, beharrezko armak eta erremintak ditu etsaiaren indarkeriaren areagotzeari aurre egiteko, eta Libano eta bere jendea defendatzeko". Begia begi truk.

### TENTSION HANDIKO NEGOZIAZIOAK, FRONTE BORTITZAGOAK

Azaroan aldi baterako su-etenaren lortu baino egun batzuk lehenago gertatu zenez, Israel orain erasoaren intentsitatea handitzen ari da, bai Gazan, bai Libanon. Su-eten baterako negoziazioen tentsioa gerra fronteetara eraman da.

### Hassan Ezzedin

Hezbollahen bloke  
parlamentarioko diputatua:

"Erresistentzia prest dago,  
beharrezko armak eta  
erremintak ditu Libano eta  
bere jendea defendatzeko"

"Indarkeriaren azken fase hau tesuinguru jakin batean gertatzen ari da: AEBen negoziazio-saiakerak geldirik daude, Iranen eta Israelen arteko desadostasunak areagotzen ari dira, eta Rafahko pasabidearen egoera kritikoa da", dio Joe Macaron Libanoko analistak.

Negoizazioen aurrerapenez galdetuta, Ezzedinek erantzun laburra eman

du, milizien diskurtso ofiziala errepikatuta: "Gure lehentasuna Gazako gerra gelditzea da. Horregatik, negoziaketetan aurrera egin nahi duenak ez gaitu konbentzitu behar ez Libano, ez Irak, ez Yemen. Palestinaren aurkako erasoak amaitzen denean, gainerako fronteetakoak amaituko dira".

Miliziak bitartekariaren bidez helarazi dio mezu hori Israeli, Hezbollah ez delako esertzen AEBekin negoziazio mahaian -taldea terroristatzat dute AEBek-. Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu gerra ministroek, baina, asteak daramatzate behin eta berri erasoaren aurkako erasoak areagotu ditzaketela Gazan su-eten bat gertatuz gero.

Israelgo iparraldean basamortua da: eraikin eraitsiak daude, moztutako errepedeak eta etxalde abandonatuak. Armadaren operazio militarrik errazteko, urriaz geroztik 100.000\* kolono inguru ebakatu dituzte bertatik. Bost hilabetez erantzunik gabe eta hoteletan zain egon

\* Zifra hori asko aldatzen da, gerraren hasieran 200.000 aipatzen ziren eta orain hedabide bakoitzak zenbaki ezberdinak ematen ditu. Adibidez, Reuters-ek dio 96.000 direla eta Haaretz-ek, 135.000. Horregatik, nik "100.000 inguru" aipatu dut.



ondoren –libanoarrak ez bezala, horiek ez baitute beren gobernuaren laguntzarik jaso–, desplazatuaren presioa bizkar gainean sumatzen du Likudek.

Hezbollahk mehatxua suposatzen du iparraldeko kokagune horientzat eta Israelek, AEBekin batera, lehentasuntzat jo du milizia hori handik kanporatzea. Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren 1701 Ebazpenak ere horixe agintzen zuen; 2006ko 33 eguneko gatazkan Israelek Libanoko komunikazio- eta azpiegitura-lineak suntsitu ondoren sinatu zen ebazpena.

Akordio horrek Hezbollahren eremu neutrala eta desarma zehazten ditu, eta gerra honetan bigarren mailako papera duen Libanoko Armada eta FINULen –NBERen bitarteko indarrak– kontrolpean uzten ditu. Eremua Lerro Urdinaren eta Litani ibaiaren artean dago, mugatik 30 bat kilometrora.

### GAZAKO GERRAREN HOTSAK PALESTINARREN KANPAMENTUETAN

Frontetik harago, Libanoko gainerako lekuetan bizitzak ohikoan jarraitzen du, ia aldaketarik gabe. Hildakoen ko-

### Marwan Maamani

palestinarraren errefuxiatua:

“Ziur nago garaipena gertu dagoela eta palestinarrak gure lurraldera itzultzeko unea iritsi dela”

purua sare sozialetatik jarraitzen da, eta urrian Beiruteko arteria nagusiak blokeatu zituzten Palestinaren aldeko protestak arras urritu dira eta ez dute jendetzarik biltzen.

Hala ere, Gazako genozidioaren isla oso nabarmena da errefuxiatu palestinarraren hamabi kanpamentuetan, non 240.000 lagun bizi diren, NBERen arabera. Lehen palestinarrak 1948an iritsi ziren Libanora, Nakhbren –hondamendiaren– ondoren.

Gaur egun, sasoi bateko kanpin-dendak porlanezko auzo prekarioak dira hiri nagusietako kanpoaldean. Libanoko

Estatuak talde palestinarraren esku uzten du herri horien gobernu eta segurtasuna.

Libanoko legeak bigarren mailako herritar gisa tratatzen ditu errefuxiatu palestinarrak, eta ukatu egiten die oinarritzko eskubideak eskuratzea, besteak beste, nazionalitatea, jabetza edo funtsezko lanpostuak eskuratzea, hala nola medikuntza, abokatutza edo ingeniari-tza.

Pobreziak eta estigmak itsasora bultzatzen ditu palestinarrak asko, haien irtenbide bakarra migrazioa da. “Ez gara pertsonak, atzerritarrek baino eskubide gutxiago ditugu”, dio 38 urteko Marwan Maamanik. Kudeatzen duen saltokian ari dira jolasean bere hiru seme-alabak eta Beddawira aitona Libanoko iparraldeko errefuxiatuen kanpamentura iritsi zen lehenetarikoa izan zen.

“Alde egin nahi duzu, baina nazionalitatearik gabe ezin duzu. Eta, batez ere, zer gertatuko litzateke ondoren gure itzulera-eskubidearekin? Al Aksa operazioaren ondoren, ziur nago garaipena gertu dagoela eta palestinarrak gure lurraldera itzultzeko unea iritsi dela”, jarraitzen du. Kanpamentuan bolo-bolo



Israelek Bekaa haranean, Libano ipar-ekialdea, egindako eraso batean hil zuen Hezbollahko borrokalarietako baten hileta, bost hilabeteko gerran izandako erasorik gogorrena.

© MARTA MAROTO



Libano hegoaldeko Alma Al Chaab herriko suntsipena, su-eten egunetan.

© MARTA MAROTO



Marwan Maamani bere seme txikiarekin jolasean bere dendako teilatuan, Beddawin, errefuxiatu palestinarren kanpamentuan.

© MARTA MAROTO

ari da ideia bera. Gazako gerrak amaiera eman dio hamarkadetako itxaronaldiari, eta okupazioaren bukaera laster iritsiko den itxaropenari bultzada berri bat eman dio.

Kanpamentuan, Palestinaren Askapenerako Erakundeak (PAE) biltzen ditu Hamasetik haragoko fakzioak eta haien arteko borrokak bere horretan diraute; haren barruan badira Marwanena baino iritzi pragmatikoagoak eta ahots kritikoak. "Haien borroka eta armak errespetatzen ditugu", hasi da Hatem Mokdada ekintzaile palestinarra. Hala ere, orain kanpamentuetako elektrizitatea konpontzen saiatzen ari gara, gure gazteriarentzat azpiegitura eta hezkuntza hobea lortzen", dio Palestinako alderdiei ustelkeria eta mugiezintasuna leporatuta. Eta defendatzen du Palestinara itzultzeko eskubidearen alde borrokatzea ez

dagoela kontrajarrita errefuxiatuei bizibaldintza duinak bermatzearekin.

Hamasen ospearean gorakada barne oreka aldatzen ari da, aliantza berriak eratzen ditu eta alderdi tradizionalen nagusitasuna mehatxatzen du. 60.000 pertsona bizi diren Ein el Helue errefuxiatu eremua, hegoaldean, Libanoko errefuxiatu palestinarren hiriburutzat hartzen da, eta bizilagun gehien duen kanpamentua da. Bere etorkizuna, orain inoiz baino gehiago, Gazan gertatzen denari lotuta dago.

"Gerra amaitzen denean ez dakigu gurekin zer gertatuko den", dio bere izena ez ematea nahiago duen errefuxiatu batek. Al Fatahren -PAE egituratzen duen erakunde nagusia- eta talde islamisten arteko tiroak udan hasi ziren kanpamentu barruan.

Eskolak bi aldeen arteko muga egiten

du eta, inork ezer sinatu gabe, infernua urriaren 7an amaitu zen: kausa bakar-rak eta etsai beraren oroimenak hutsal bihurtu zuen barne-gatazka. "Ez du zentzurik palestinarrek elkar hiltzea etsai komun handiago bat dugunean", dio Rahif Almeari etsipen ukituarekin. Bere etxea bi taldeen arteko frontearen lehen lerroan dago, eta balek gelako hormak zulatu zizkioten.

13 urte ditu eta kanpamentuan eza-guna da Palestinako sinboloak mihiseetan marrazten dituelako. Olibondoak, *kufiya*-ren ereduak, mapak edo erresistentziaren liderrak. "Israelek gure tradizioak ezabatu nahi ditu eta horrexegatik margotzen dut, kanpoan gure kulturaren berri eman nahi dudalako. Libanon edo Gazan, garrantzitsua da jendeak jakitea palestinarrek nor garen", mintzo da Almeari helduen ahotsez. ●

## bat Soziolinguistika aldizkaria

BAT 130.  
ZENBAKIA

SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea



### TXILLARDEGI- HAUSNARTU SARIAK (2023)

- ENEKO BARBERENA MONDRAGON  
> Multinazionalen hizkuntza politika egokirako hainbat gako.
- GARIKOITZ GOIKOETXEA ETXEBERRIA  
> Euskararen geografia berria.

### harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus/> / 943 592 556  
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

- JONE M. HERNÁNDEZ GARCÍA ETA MARTA LUXÁN SERRANO > Hiztunaren genero nahasmendua. Hizkuntza gutxituak, euskara eta generazio prozesuak.
- ARANTZA EGIGUREN AIZPIOLEA > Baionako Bernat Etxepareko 15-18 urte bitarteko ikasleek, Ipar Euskal Herrian, ikastolatik kanpo, euskara erabiltzeko dituzten arnaguneak, oztupoak eta jarrerak.



## FELIPE DE LUIS MANERO

# “Urtain propaganda politikorako erabili eta gero erortzen utzi zen”



Jose Manuel Ibar 'Urtain' (1943 - 1992) boxealari zestoarraren bizitza hainbatetan kontatu bada ere, frankismo berantiarreko ikur herrikoiairen figura aztertu du Felipe de Luis Manerok bere *Urtain. Retrato de una época (Pepitas de Calabaza, 2024) liburuan*. Pertsonaian ez ezik, garaian eta Urtainen eraikitze eta eraiste prozesuan ipini du begia.

**IÑIGO BASAGUREN-DUARTE**

## Zer ekarpen egiten dio liburu honek aurretik Urtaini buruz idatzitako guztiari?

Egia da aurretik beste liburu batzuk argitaratu direla, baina antzezlan bat ere. Nik Urtainen biografia osorik jorratuko zuen liburu bat idatzi nahi nuen. Gainera, beste helburuetako bat zen Urtainen bizitzan gurutzatzen ziren pertsonaien kapitulu txikiak sartzea, *collage* moduan. Azkenik, garai baten erretratua egiteko gogoia nuen.

## Nolakoa zen Urtainen igoera eta erorketa gertatu ziren garai hura?

Garai bitxia da. Jendeak aldatzeko gogo handia zuen, gizartean eta egunerokotasunean gailentzen zen grisetik irteteko gogoia zegoen. Bohemiari dagokionez oso garai emankorra da: sormenerako

eta gaueko bizitzaz gozatzeko gogo handia zuten. Boxeoak zuen ospea deigarria da. Azkenik, oso garai nahasia zen, diktadorea hiltzen ari zen eta ate asko irekiko zirela zirudien.

## Hala ere gai politikoek ez dute leku handirik.

Idazten ari naizenean kontatu nahi dudana horretara mugatzen saiatzen naiz. Liburu honetan Urtaini buruz idatzi dut, ez nuen frankismo berantiarri buruzko azterlan bat egiteko asmorik. Historia nagusiarekin zerikusia duten pasarte eta eszena adierazgarriak eskaintzen ditut, hori bai, Francoren mendiko pertsonalaren edo Paulino Uzkudun boxeolariaren istorioak, esaterako. Urtainen historia kokatzen laguntzen dutela uste dut.

## Urtainek egindako bidaia, Zestoatik Madrilera, erabili duzu gertatzen ari den talka hori irudikatzen.

Landa eremuko bizitza gutxietsi nahi izan gabe, uste dut Urtainek ez zuela bizimodu hori nahi. Badaki harrijaso-tzaile gisa ez duela behar beste diru irabaziko eta noizbait fabrika batean lan egiten hasi beharko duela. Baserritik haratago dagoena ezagutu nahi du eta une horretan boxeoa aritzeko eskaintza dator. Hasieran uzkur agertzen da, baina badaki hori dela egokitu zaion bizitzatik irteteko daukan aukera baka-rrenetako.

## Herri kirolak naturaren etxekotze-prozesu gisa definitu dituzu, eta hori Urtaini berari aplikatu dakioke, baina bere barnean bizi duen gatazka horri ere.

Urtaini berari gehien gustatzen zaiona ez da boxeoa, harriak jasotzea baizik. Naturako elementuen aurkako borroka hori berari ere aplikatu lekieke, bizitza osoa ihes egiten ematen baitu, lehenengo herriko bizitzatik eta gero bere baitatik. Azkenean, bere itzalerantz ihes egiten du.

## Abentura eta mundu berri baten deskubrimenduaren kontakizun gisa hasten dena, erorketa baten anatomia gisa bukatzen da.

Erorketa lehen kapituluaren aipatu eta

tentsio narratiboari eusteagatik mantendu nuen. Interesgarria iruditzen zitzaidan, halaber, gizaki garen aldetik zer garen erakusten duelako, bizitza heriotzatik ihes egiten pasatzen baitugu.

### **Erregimenak Urtain bezalako norbait behar zuela diozu.**

Erregimena ahultzen ari zen eta boxeoa oso herrikoia zen, ospe handikoa, baina txapeldun bat falta zen maila nagusian: pisu astunetako. Oso presente zegoen Paulino Uzkudunen figura, 1936ko Gerraren garaian Falangearen aldeko boxeolari euskalduna zena. Hainbat faktore elkartzen ziren garaian eta, Espainiak munduaren aurka duen borroka metaforiko horretan, Urtain propagandarako erabiltzeko aukera sortu zen. Urtain frankismoaren sinbolo gisa ikusten da, eta horrek Uzkudunek eragin zuen gaitzespen bera eragin zuen Euskal Herrian.

### **Uzkudunen zein Urtainen karrera euskal nazionalismoaren loraldiarekin bat gertatzen da. Kasualitatea al da bi aro desberdinetan totalitarismoaren eta nazional-katolizismoaren bi kirol-ikono euskaldunak izatea?**

Uzkudunena Urtainena baino kasu nabariagoa da, Falangearekin lotura zuzena izan zuelako eta gerra garaian presoak pertsonalki torturatzen zituelako. Diotenez, berak agintzen zuen horiei tiro egitea. Baina bien artean lotura dago: Urtainen lehen borrokaldian Uzkudunek egin zituen aurkezle lanak. Ezer ez da kasualitatea, erregimena

## **“Boxeatzen ez dakien tipo bat da, gauzez ateratzen dena, leiala ez dena... Horrek guztiak dakar pertsonaia eraiki eta jendeak berarekin konektatzea”**



horretaz baliatu zen eta mezua zabaldu zuen: heroi hau euskaldun ona da espainiar ona delako. Baina nik uste dut Urtain ez zela politikoki kontzientziatutako pertsona, Uzkudun zen bezala. Bere deabruak beste batzuk ziren.

### **Liburuan diozu Urtainen pertsonaia jendeak sortu zuela.**

Herri kirolean dabilenetik mirespena sortzen da. Karisma berezia du, azaltzen zaila dena. Prentsak eta bere taldeak puztu zuten pertsonaia, baina ez da hori bakarrik. Hasieran boxeatu ez duten edo lehen kolpera erortzen diren aurkarien aurka borrokatzen denean, borroka horiek ikusmin handia sortzen dute, boxeozaileek Uzkudunek utzitako aho zapore txarra

kendu nahi dutelako. Boxeatzen ez dakien tipo bat da, gauzez ateratzen dena, leiala ez dena, eta abar; eta horrek guztiak dakar pertsonaia eraiki eta jende askok berarekin konektatzea. Jendearen maitasunik gabe ez zatekeen izango izan zena: heroi herrikoia.

### **Boxeatzen ez jakin arren, pisu astunen Europako txapeldun bihurtu zen.**

Bere karrerari bi etapa daude: ikasturra eta boxeolaria. Borrokan ikasten du, borroka gutxi gora-behera korapilatsuetan. Une batean boxeoa hasten da, serio lehiatzen, eta orduan hasten da galtzen.

### **Azkenean boxeoaren munduan sartzen da egokitu zaion bizitzarako irtenbide bakar gisa ikusten duelako.**


Pertsonaiak, norberaren burua igo-gailu sozialean igotzeko bide gisa erabiltzearen ideia faltsu horretatik ere asko du. Oso ideia zaharra da, baina oso modan dago gaur egun. Ogia eta zirkua bezain zaharra da. Gaur egun futbolarekin ikusten dugu, estadioetan oso bizitza gogorak dituen jendea dago, erralitatetik ihes egiteko edo, futbolariak gurtzen dituen. Auto-hobetzearena, bestalde, min handia egiten ari den mezua da, "nahi baduzu ahal duzu" dioena, alegia.

### **Urtainen historiak arrakastaren aurpegi iluna erakusten du.**

Ez zekien borroka hori borrokatu beharko zuenik eta horrek aurretik eramane zuen. Oztopo asko izan zuen, eta kirolari arrakastatsua izateari uztean, eraikitako pertsonaiari aurre egin behar dio. Lortzea oso konplikatu zen eta berarentzat existituko ez zen zerbait saldu zioten.

### **Bilatzten duen askapen faltsua, baserritik ihes egitea, azkenean alienatu egiten duen zerbait da.**

Kontraesankorra da, baina egia. Anaia-rekin, lehenengo emaztearekin eta inguruarekin hautsi eta Madrilen bakardade une gogorak ditu. Horregatik eramaten du arreba, laguntza hori behar duelako. Askok sufritzen du, halaber, bere lehen familiarengandik jasotzen duen gaitzespenagatik. Bere lehen semeak oraindik ez du José Manuel Ibar aitatzat hartu. Zama handiegia da hori.





**Julen Lopetegiren aitarengan dauka nemesia. Herrian geratu eta, itxuraz, zoriontsuagoa den norbait.**


Une batean elkarren aurka borrokatzen dira, eta hori bi bide ezberdinen arteko borroka gisa har daiteke. Baina Urtainen naturan ez zegoen baserrian geratzea, irten beharra zeukan. Zer gerta zitekeen herrian geratu izan balitz, beti jarraika izango duen itzala da.

**Bere anaia Candidorena antzeko kasua da: AEBetara joaten da arrakasta bila, zesta-puntarekin dirua egitera, eta azkenean miseria pairatzen du eta gainera seme batek heriotzaren korridorean bukatzen du, Pablo Ibarrek.**

Kointzidentzia benetan krudela dirudi. Gaztetan harreman estua duten bi anaia dira, denborarekin elkarrengandik urruntzen direnak. Bakoitza amets batzuk bilatzen saiatzen da, eta oztopo askori egin behar izaten diete aurre. Candidoren bizitza oso gogorra da. Libururako elkarrizketak egiten ari nintzenean, Urtainen baserrian Candidorekin hitz egiten ari nintzela, kanpoaldeko berdetasunari erreparatuta horrelako zerbait esan zidan: "Begira zer galdu genuen Jose Manuelek eta biok mundua jan nahi izateagatik, eta begira nola amaitu dugun". Gogoeta malenkoniatsu eta tristea da, egokitu zitzaien bizitza ez den beste baten alde borrokatu nahi izan zuten bi pertsonena. Candidori buruz ere liburu bat idatz liteke.

**Boxeoan, borroka irabazi ala galdu, boxeolariak beti sufritzen du; beti galtzen du.**

Hala dirudi. Boxeoak beti izan du aura mistikoa, kirolaz gain dagoen zerbait. Boxeolariak bere buruaren aurka egiten duen borroka gisa ikusten da. Esaten denez, boxeolaria da kirolaren protagonista eta,aldi berean, gauza askoren berri duen azken pertsona. Urtainek bere bizitzaren amaieran ikasi zuen zerbait da. Ameriketako Estatu Batuetatik igaro ondoren, *sparring*-ak zer diren ikusten du: mutilak, gehienak beltzak eta pobreak, gimnasiotik gimnasia joaten direnak diru pixka baten truke kolpeak jasotzera. Urtain konturatzen da objektua dela, hainbat entrenatzaile eta managerren eskuetatik pasa delako, eta ez da haietako bakar batekin ere ondo konpontzen.



Urtain, 1970ean Zeruko Argian plazaratutako argazkian. / AYGUES

**“Urtain ez zen politikoki kontzientziatutako pertsona, Uzkudun zen bezala. Bere deabruak beste batzuk ziren”**



**Hauspotu duen jende horrek berak gozatzen du bera erortzen ikustez.** Hor dago heroia erortzen ikusteko masak duen morboa. Gizakiok heroiak sufritzen ikusteko dugun ifrentzua da. Horretaz asko baliatu zen José María García, Urtain suntsitzen zuen liburua argitaratu zuenean. Bere kazetaritza-kroniketan goratzen duen pertsonaren erorketatik etekina ateratzen saiatzen da gero. ●



“ ”

*Öcalanen aurkako sistema garatu du Turkiak Imraliko espetxean eta beste preso politikoek aurka baliatu du*

Ibrahim Bilmez

Ibrahim Bilmez abokatu da eta Abdullah Öcalan buruzagi kurdua da bere bezeroa. Bere isolamendua salatu du Euskal Herrian otsailean, Turkiako errepresio eta inpunitate mekanismoak azalduta.

 AITOR ASPURU SAEZ





**Abdullah Öcalanen atxiloketa azaltzeko, Kurdistango askapen mugimenduak aipatzen du “konplota” gertatu zela bere aurka, zer esan nahi du horrekin?**

Abdullah Öcalanek utzi behar izan zuen Siria, eta Europara etorri zen gai kurduari konponbide baketsua emateko asmoarekin, baina, tamalez, garai horretan Mendebaldeko herrialde guztiek itxi zizkioten ateak eta Ameriketako Estatu Batuek eta Israelek, bereziki, eragin oso negatiboa izan zuten. Esaterako, euren aire espazioa itxi zioten, bere hegazkina ez lurreratzeko inon. Hortaz, herrialde batetik bestera joan behar izan zuen, guztiek ukatzen baitzioten geratzeko aukera: Grezia, Errusia, Italia...

Zentzugabea izan zen. Milaka kurdu daude PKK babesten dutenak. Haien lortu izan dute asiloa, baina haien buruzagiak ez. Asilo eskaera egin zuen Grezian, Errusian eta Italian eta hirurek ukatu zioten. Ate oro zeuden itxita eta, azkenean, Keniara jo behar izan zuen. Greziaren bermea zuten eta hango enbaxadan eman zuten denbora. Dena den, AEBek eta Israelek bideratutako operazioaren bitartez, bahitu eta Turkiaren esku utzi zuten.

Herrialde horiek guztiak egon ziren inplikaturik, horregatik esaten dugu konplota izan zela.

**Bahiketaren ostean epaiketa egon zen eta zuek salatu duzue ez zela justua izan.**

Militarren epaitegi batek epaitu zuen eta, hori gutxi balitz, Öcalanen aurka propaganda izugarria egon zen iritzi publikoan. Berak zein bere abokatuak ez zuten eskubiderik izan akusazioa jasotzeko eta abokatuak mota guztietako erasoak jaso zituzten. Gainera, euren lekukoak ez zituzten onartu.

Öcalanek ezin izan zuen bilerarik egin abokatuarekin eta lege berme ugari ez ziren bete. Bere defentsa prestatzeko desabantaila argia izan zuen, eta, hortaz, ez zen bidezko epaiketa izan. Are gehiago, Europako Giza Eskubideen Epaitegiak adierazi zuen ez zuela epaiketa justua izan eta berriro epaitu behar zutela, baina hori egin ordez, Turkiak espedientea ireki zuen eta berehala itxi. Ez zuten agindua bete. Tamalez, Europako Kontseiluak onartu ditu legez kontrako mugimendu horiek Turkiaren aldetik.

**Imraliko uharte-kartzelan 25 urte daramatza Abdullah Öcalanek**

## “ ” Europako Giza Eskubideen Epaitegiak adierazi zuen Öcalanek ez zuela epaiketa justua izan

**eta zuk azaldu duzu hori ez dela presondegi hutsa, baizik eta sistema bat, berez.**

Isolamendu eta legez kanpoko sistema da. Sistema sortu dute propio pertsona bakarrarentzat eta Öcalanen aurka gartatu ondoren, beste batzuen kontra baliatu dute. Adibidez, herrialde gehienetan debekatuta dago estatuak entzutea zer hitz egiten duten abokatuak eta presoak, baina legea aldatu zuten hori ahalbidetzeko eta preso politikoen aurka erabiltzen dute. Lehen Öcalanen kontrako neurria zen, aldiz, 2017tik aurrera –estatu kolpe faltsuaren ondoren–, edonoren aurka baliatzen dute. Bi adibide dira Osman Kavala eta Selatim Demirtas.

Indarrean dagoen beste neurri bat da abokatuari debekatzea Öcalanekin lan egitea. Askori ukatu diote aukera hori. Hamabi urtez Öcalani ordubeteko bisita ahalbidetu zioten astero, eta hala ere, eskubide hori urratu zuten sistematikoki

eguraldi arazoak argudiatuta, adibidez. Finean. Imrali espetxea laborategi erre-presiboa da.

**Zenbat pertsonak kontrolatzen du Öcalanen egunerokoa Imralin?**

Ez dago zibilik gune horretan, espetxe itxia da eta postu militarrez inguratuta dago. Ez dakit zehazki, baina ziurrenik 600 militar baino gehiago.

**Zeintzuk dira bizi baldintzak han Öcalanentzat?**

Duela hiru urtetik hona, ez dakigu ezer. Ez dakigu ea birizik edo gaixorik dagoen. Duela hiru urte bagenekien harremana zuela beste hiru presorekin, ordubetez egunero –asteburuetan salbu–, baina geroztik ez dakigu ezer. Abokatuok ez dakigu ezer gure bezeroari buruz, ezta bere osasunari buruz ere.

1999tik 2005era arte Imralin zegoen preso bakarra izan zen. Gero beste sei eraman zituzten eta egun beste hiru daude, baina eurak ere isolatuta daude eta inork ez daki ezer.

**Torturaren Prebentziorako Batzordeak salatu zuen Imraliko sistema, berez, tortura zela, baina Turkiak bere helburu politikoak lortzeko bortizkeria zuzena erabili al du Öcalanen aurka?**

Fisikoki saiatu dira hainbat aldiz bera torturatzen, baina oso ezaguna denez, eta herri kurduaren erantzun irmoaren ondorioz, utzi zioten hori egiteari. Saia-kerak egon ziren, probatzeko zein zen kurduen erantzuna, baina oso bizia izan zen eta baztertu zuten.





Edonola ere, isolamendu egoera hori tortura da, berez. Irakurtzen ari delarik, bost minuturo irekitzen diote atea. Argiak piztuta daude beti. Giza Eskubideen Epaitegiak adierazi zuen 2012an sistema hori tortura dela. Itxaropenerako eskubidea existitzen da eta hori ez dago Öcalanen kasuan. Bizi osorako zigorra ezarri zioten. Ziega batean sartu zuten eta ez diote inoiz handik ateratzeko itxaropenik eman.

**Duela hiru urte familiak aukera izan zuen berarekin biltzeko, baina horretarako beharrezkoa izan zen Leyla Guvenen gose greba luzea eta preso politiko ugarirena. Zuen bezeroarekin elkartzeko, zein baldintza beharko lirateke gaur?**

2019ko gose greban ehunka lagun egon ziren hiltzorian. Horren ondorioz elkartu ginen Öcalanekin eta eskatu zuen gose greba bertan behera uzteko. Baraualdia amaitu bezain pronto, isolamendu egoerara itzuli zen.

2011tik Öcalan soilik bildu da bost aldiz abokatuekin eta azkena gose grebaren testuinguru horretan izan zen 2019an. Familiaren kasua antzekoa da. 2014. urtetik bost aldiz ikusi ditu bere senideak eta azken aldia 2020an izan zen. Hamabost urtetan bi telefono dei

“ ”

***Duela hiru urtetik hona, ez dakigu ezer. Ez dakigu Öcalan ea birizik edo gaixorik dagoen***

baino ez dizkiote baimendu eta azkena 2021eko martxoan izan zen –berehala moztu zuten–. Geroztik ez dakigu ezer.

Gauzak horrela eta, tamalez, lau urteren ostean, gose greba abiatu dute berriro eta nazioarteko kanpaina hasi dugu, ez soilik espetxeetan, baita kanpoan ere. Ez dakigu nahikoa izango den berriro berarekin biltzeko. Turkiak ez badu sentitzen bere burua presiopean, ez du ezer egingo.

**Öcalanen egoera, zure aburuz, prozesua da. Aldatu daiteke, ez baita Öcalanekin soilik lotuta dagoen kontu bat. Esaterako, AKPren eta PKKren artean negoziazioak**

**izan zirenean, Öcalanen aurkako neurriak lasaitu zituzten. Zein eragin izan du horrek zuengan, abokatuengan? Zu atxilotua eta espetxeratua izan zinen.**

Hamaika aldiz zigortu eta atxilotu gaituzte. Nik bi urte eta erdi igaro nituen espetxean. Entzuten dugu telefonoz esaten dugun guztia eta ez dugu urrats bakarra egiten eurak atzean egon gabe. Presio handia da, baina bagenekien eta ohitu gara. Ohorea da guretzat bere abokatuak izatea.

**Azken hauteskundeetan indar politiko kurdu aurrerakoiek Erdoganen oposizioari babesa eman zioten, eta oposizioak, azken txanpan, kurduen kontrako diskurtsoa gogortu zuen, ia Erdoganek baino gehiago. Hori dela eta, udal hauteskundeetara begira, alderdi politiko kurduak aztertzen ari dira AKP berarekin negoziatzea. Horrek itxaropena ematen dizue Öcalan ikusteko epe laburrean?**

Konfiantza osoa dut ahalik eta presio handiena eginda, isolamendua apur dezakegula epe laburrean. Horretarako, besteak beste, Euskal Herrian egin ditugun topaketa hauek lagungarriak dira nazioartean presioa eragiteko. ●



# “Filmak ez daude gorrentzat eginda; euskara ez dakitenentzat eginda daude”

Jende askorekin eta elkarrizketaz inguratuta dagoenean isil-isilik edo ohi baino isilago egoten da Irati Erauskin (Hondarribia, Gipuzkoa, 1996). Horregatik, “oso irekia” den arren lotsatia dela uste dute batzuek. Entzumen urritasuna dauka, eta batzuetan “oso zaila” egiten zaio jendearen elkarrizketak jarraitzea. Entzumen urritasunaren inguruko informaziorik eza “handia” dela salatu, eta aisialdian eta hezkuntzan neurriak hartzeko beharra azpimarratu du.

 OLAIA L. GARAIALDE  DOS POR DOS



Irati Erauskin

**U**rteekin, aurrera egin du teknologiak, eta horrekin batera entzumenaz aztertze probek. Irati Erauskin sortu zenean, 1996. urtean, ez ziren horrenbeste proba egiten, horregatik ez du argi noiztik duen entzumen urritasuna: “Bost urterekin hasi nintzen belarritik pixka bat gaizki entzuten, eta hamar urterekin deskubritu nuen belarri batetik ez nuela deus entzuten”. Ezkerreko belarritik gutxi entzuten du, eta eskuinekotik soilik dardarak.

Entzuleen munduan hezi da, eta hasieran bereziki “oso gogorra” egiten zitzaion, “izugarritzko konplexua” zuelako: “Urteak eta urteak eman ditut esan gabe. Are okerragoa zen ez nituelako elkarrizketak jarraitzen”. Horregatik, jendeak uste du lotsatia dela, baina “oso irekia” da: “Ez dakit soilik izaera kontua den, edo bizirauteko tresna bat ere baden”.

Ezpainak irakurtzen ditu, eta horretarako beharrezkoa da jendeak aurpegira begiratzea, ongi ahoskatzea, “pixka bat poliki” eta tonu “egokian”. Hala ere, “esfortzu handia” da eta informazio “asko” galtzen du: “Adibidez, bazkalondoan oso

“Sare sozialei esker, nire egoeran dagoen jendeak ikusi dezake ez dagoela bakarrik”

gaizki pasatzen nuen, ezinezkoa zelako haria jarraitzea, eta askotan negarrez amaitu izan dut”.

Ezpainak irakurtzeko esfortzua egiteaz gain, etengabe azalpenak eman behar izaten ditu jendeak ez dakielako nola jokatu: “Ez baduzu desgaitasunik edo ez bazara pertsona zapaldu bat, pribilegio burbuila batean bizi zara, eta hor ez dagoen pertsona bat ezagutzeak burbuila horretatik ateratzea eskatzen dizu. Horrek deseroso sentiarazten duenez, errazena baztertzea da”.

## SAREAK, AHALDUNTZEKO BIDE

La Pantoi! (@agobixu) izenez ezaguna da X plataforman. Sare sozialen bidez, matxismoa eta lodifobia salatu ohi ditu, baina oraindik ere “estigma handia” dagoenez, pandemiara arte ez zen ausartu kapazitateaz hitz egitera: “Parte hartu dudana

saio batzuetan esan izan dut ez aipatzeko entzumenarena, estigmatizazioaren beldur nintzelako”. COVID-19aren ondorioz, maskarak erabiltzea derrigorrezkoa zenez, ezin zituen ezpainak irakurri: “Ezin nintzen inorekin komunikatu”.

Itzaletan bizi izan ditu “frustrazioa” eta “antsietatea”, baina azkenean kanpora ateratzeko beharra sentitu zuen: “Bestela nire osasun mentala pikutara joango zen”. Saretzeko lagungarria ere badela uste du: “Nire egoeran dagoen jendeak ikusi dezake ez dagoela bakarrik”. Gaineratu du mugimendu antikapazista “indartu” behar dela.

Duela gutxi *20.000 especies de abejas* filma ikustera joan zen, eta sare sozialen bidez salatu zuen, beste film askorekin gertatzen den moduan, ez zuela azpitolurik. Filmaren informazioan jatorrizko bertsioa zela jartzen zuen, baina praktikan euskaraz testu gutxi zuen, eta soilik euskarazko zatiek zituzten azpitoluak. Jatorrizko bertsioan pertsonaien elkarrizketen %70 inguru dira gaztelaniaz, eta beste %30 euskaraz. “Filmak ez daude gorrentzat eginda; euskara ez dakitenen-



tzat eginda daude”, salatu du. Gaineratu du gaztelera lehenesten dela euskararen gainetik: “Arauaren arabera funtzionatzen du gizarteak: arauan sartzen bazara, dena zuretzat; bestela, kanpoan geratzen zara. Entzumen urritasuna izatea eta euskara jakitea arauan ez sartzea da”.

Ez da kasu bakana, askotan errepikatzen den praktika bat da, eta Erauskinen arabera, gaur egun dagoen teknologiarekin azpigituluak jartzea egin beharreko “gutxienekoa” da: “Oso gutxitan joaten naiz zinemara, oso aukera gutxi ditudalako”. Etxean aurikularrak eta azpigituluak jartzen ditu telebista ikusteko.

### JELOSKORTASUNA ETA ONESPENIK EZA HEZKUNTZAN

Hezkuntzari ere kritika egin izan dio sareetan, hezkuntza sistemak ez dielako aurre egiten gorrak diren pertsonek beharrei: “Ziurrenik beste desgaitasunak dituzten pertsonak ere albo batera geratuko dira”. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza “oso gogorrak” izan ziren beretzat. Aurrean esertzen zen, eta ezpainak irakurriz klasea jarraitzen saiatzen zen: “Irakasleek ez zuten ulertzen nekazten nintzela eta informazio asko galtzen nuela. Orduan, arreta deitzen zidaten deskonektatzeagatik”.

Zenbait proba egokitzen zizkioten; esate baterako, ez zuen ingelesezko entzumenik egiten: “Logikoa zela pentsatu ordez, jendeak jeloskor begiratzen zidan”. Euskarako entzumena egiteko aldiz, bozgorailu bat jartzen zioten belarrian: “Hori ez da zentzuduna; ezin dut entzumena jarraitu”. Horren ondorioz, “bartzertuen taldean” zegoen: “Ez zidaten izugarrizko jazarpena egiten, baina nirekin sartzen ziren”.

Unibertsitatean gauzak aldatuko zirela uste zuen, baina egoerak ez zuen hobera egin. Psikologia ikasi du, eta unibertsitate garaian, neska talde batek “oso gaizki” tratatu zuen. Horrez gain, talde-lanak egiteko trabak zituen: “Jendeak leporatzen zidan ez nuela deus egiten, baina ez zuten ulertzen ezin nuela elkarrizketa jarraitu, eta ez nekiela zer egin behar nuen”. Probaren bat aldatzen ziotenean, unibertsitatean ere jeloskor jokatzeko zuten batzuk: “Ez nuen hori espero psikologiko ikaskideengandik”.

Halere, bere sarea ehunduz joan da, eta aisialdian, lanean eta bestelako espazioetan bidea egitea lortu du: “Egoeraren arabera asko aldatzen da dena, baina barka ezagutzen badut jendea, errazagoa da”. Egun, ez da isilik geratzen, eta sareek ahalduz gogortzen diote. ●

### GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Bihotza, osasun mentalarengatik eta emozioengatik. Asko gustatzen zait emozioak lantzea, baina iruditzen zait ez dugula hezkuntza emozionala lantzen. Eskolatik ez digute erakusten nola kudeatu emozioak, eta gabezia asko ditugu. Depresioa, antsietatea eta beste asko ateratzen ari dira, eta ongi dago psikologorenera joatea, baina gizarte bezala alternatiba bat bilatu behar dugu.”





## NEGAKINA

EZ DUZU MAITEKO BAINA  
BERAK ZAINDUKO ZAITUGARBIÑE LARREA  
ITURRALDE

**U**daberrri usainean gara eta hasi zaizkigu iristen gibela garbitzeko tratamendu miragarriak, belardendako erakuslehioan edo sare sozialetan azken egunotan *detox* hitza da gehien irakurtzen dudana. Denak dira miragarriak, eraginkorrak eta azkarrak, osasuntsu bizitzeko promesa egiten dutenak. Ez dago halakorik ordea, ez da posible, ezin liteke. Gibela ez dugu epe motzean zikindu eta garbitu ere nekez egin liteke epe motzean. Ez komeni gainera, lehendik lan gainkarga duenari presakako garbiketak nekea eragingo diolako.

Atzerritik ekarritako sendabelarrak ere jartzen dira boladan *detox* hauetarako baina gibela garbitzen duen sendabelar andana daukagu gurean eta basatiak izaten dira askotan. Horietako bati begira jarriko gara, negakinari (*Fumaria officinalis*).

“Hori? Belar txar hori? Bementan ari al zara? Hori konejuak ere ez du-eta jaten!” esan zidan asaldatuta Aizpurutxoko gizonetzko batek, baserritarra bera, lehortuta infusiotan hartzea komeni zitzaiola esan nionean. Hark ere atzerriko sendabelar bat, pilulatan ahal bada, hobetzat zeukan eta baratzean porru artean hazten zitzaion belar txarra erremedio bikaina zuela ikusaraztea asko kosta zitzaidan. Udaberria pasatakoan itzuli zen eta izenburua eman didan esaldia bota zidan: “Nik ez dut asko maite belar hori baina berak ni bai, zaindu nau”.

Berriki aritu naiz Europako Botiken Agentziaren (EMA) monografia bat irakurtzen, negakinari osorik eskaintako txostena. Datu jakingarriak irakur daitezke bertan. Askok uste dute erabilera herrikoi edo tradizionalaren iturrietatik bakarrik edaten dugula eta ez da hala, *in vivo* bezalaxe *in vitro* ikertzen dira hainbat sendabelar eta komeni da horiei buruz jakitea.



DANI BLANCO / ARGIA - CC BY-SA

Monografian frogatutzat ematen da behazun xixku berria sorrarazten duela eta jario hau hobetuz xixku zaharra kanporatzen laguntzen duela, hortik gibelarentzat onura. Jaten hasi eta berehala sortzen den betetasun sentrazioa tratatzeko eraginkorra dela ikusi da eta bakterioen kontrako gaitasuna izateaz gain antioxidatzailea dela ere ikusi dute. Oro

har digestio ezintasuna tratatzen du eta honek sortutako buruko mina ere bai. Ikerketa lerro gehiago ere badira baina momentuz ondorio garbirik gabeak.

Negakinaren txorten, hosto eta loreak lehortu eta udaberrian goizero baraurik gozagarririk gehitu gabeko infusio bat hartzea nahikoa genuke onura hauek izateko. Pertsonaren arabera bederatziruena edo berrogeialdia egin liteke, hori bai, edozein epetan ari garela ere ondoeza sortzen badu, hartzeari utzi.

Haurdunaldian eta edoskitzaroan ezin da erabili. Haur eta nerabeentzat ez da egokia. Behazunean harriak, lokaztutako behazun xixkua edo hodiak buxatuta baldin badaude ezin da erabili. Polipoak badaude edo gibeledko gaitz larria ezta ere. Gibelari lan eginarazten dion botika ia gehienekin ez da bateragarria, hartu aurretik medikuari galdetu badaezpada. Odolean globulu gorri gehiegi duenak gutxi eta epe motzean hartu behar du (hilean astebetean). ●

## A ZE FAUNA!

## KANPAIAK NONAHI



**NAGORE ZALDUA MENDIZABAL**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**T**axonomia, espezieen ezaugarri txikienak kontuan hartuz bata bestearengandik bereiztea eta identifikatzea helburu duen zientziaren alorra da. Mila jatorri, mila izen arrunt, eta izen zientifiko bakarra baino ez. Lan zail bezain garrantzitsua da izenak adostea, espezie jakin baten inguruan ari garela bermatzeko ezinbestekoa baita.

Espezieen arteko nahasmenak nonahi izanik, Bizkaiko Golkoan ere baditugu hainbat adibide, udan hain ezagun bilakatzen diren *Rhizostoma* generoko marmoken baitan sortutakoak kasu. Kantauri itsasoan, talde honetako bi espezie topatu ditzakegu: *Rhizostoma octopus* (Gmelin, 1791), eta *Rhizostoma luteum* (Quoy et Gaimard, 1827). Batzuetan, ordea, lehen izendatzeko, Mediterraneoan uretan topatzen den *Rhizostoma pulmo* (Macri, 1778) marmokaren izena ere erabili izan da. Beraz, *R. octopus* *R. pulmo*-ren aldaki Atlantikoa dela ere esan genezake.

Orohar bizidun lirdingatsuekin gertatu ohi den bezala, ez da talde erraza

ikertzeko baina azken hamarkadan aurrerapauso handiak eman dira hauen bizi-zikloaren inguruko ikerketan. *Rhizostoma* generoko espezie guztietan ale gazteak hor nonbait izango badira ere, zailak dira ikusten, 3 edo 4 cm bitarteko marmokatxo gardenak baitira. Helduen kanpaiak, ordea, 150 zentrimetrotik gorako diametroa izan dezakete, eta 25 kg-tik gorako marmokak ere badira.

*R. octopus* Kantauri itsasoan eta honetaz kanpo, Zurriola, Saturra edo Ondarraitzen topa dezakegun marmoka erraldoia da. Hainbat leku eta hizkuntzatan “Kupel-marmoka”, “itsas-birika”, edo “azalore” modura ezagutzen bada ere, gurean, “kanpai urdina” da. Gure itsaso epetetik iparraldera, adibidez Irlandako Itsasoan, errazago ikus daiteke, talde handitan; hemen, aldiz, banaka eta kopuru txikitik. Larruzko dortokak eta ilargi arrainak marmoka honen zale amorratuak dira eta harrapakin honen bila milaka itsas milia egiten dituzte, iparraldeko ur hotzetara bisita eginda.

## KANPAI URDINA

*Rhizostoma octopus*

**TALDEA:** Ornogabea/  
makroplankton lirdingatsua/  
cnidarioa/ scyphomedusa.

**NEURRIA:** 150 cm-tik gorako  
diametroa izan dezakete eta  
25 kg-tik gorako pisua.

**NON BIZI DA?** Itsas zabalean.  
Baina kostaldean pausatzen ditu  
polipoak: hauetatik sortuko dira  
marmoka gazteak (ephyrak).

**ZER JATEN DU?** Planktona eta  
krustazeo txikiak.


**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

Kanpai urdinak hainbat kolore aurkeztu ditzake bere bizitzan zehar: zuri edo horixkatik, berde, urdin, arrosa edo marroietara. Baina badu bereziki azpimarratu behar den more koloreko koroa: kanpaiaren ertz osoa apaintzen du, bere 112 lobulu borobilduri kolorea emanaz. Horrez gain, kanpaiaren azpian dituen zortzi aho-besoak espeziea identifikatzeko adierazgarri dira, azalare kizkurraren itxurako egitura dutenak. Beso hauetan ehunka garro txiki dituzte, ehizarako eta defentsarako erabiliko dituen “nematostozo” deituriko zelula erresumingarritz hornituak.

Gure uretan topa dezakegun beste kanpaia, ordea, kanpai zuria (*R. luteum*) da. Urte luzez desagertutzat eman da, gaizki identifikatu denez, beste kide batzuekin nahastu izan baita. Kanpai zuria uste baino ugariagoa da, hasi Kantauri itsasotik, eta Hego-Afrikaraino.

Kanpaiok haien artean bereizteko bi ezaugarri dira nabarmenak: bata, kanpaiaren ertzeko koroa morea; bigarrena, berriz, aho-besoek morfologia. Kanpai zuriaren aho-besoek borra luze baten forma dute, hiru metro luze izan daitezkeena; gehienetan kolore hori zurbila izaten dute, purpura tonuekin haien muturrean.

Adi, beraz, hurrengoan itsasoan marmokak ikusiz gero; ez baitira denak berdinak. ●



XAVIER CAISEY / CC-BY-4.0



# USAINAK ETA KIRATSAK



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuhaitzen lore sasoi en usainak ederrak dira, batzuk. Igaro berri dira mimosarena (*Acacia dealbata*) eta goizeko magnoliena: magnolia izarra (*Magnolia stellata*) eta magnolia tulipa (*Magnolia soulangeana*). Usain ederrez ekarri digute itulan egun luzeen aroa. Eta orain sahatsak (*Salix spp.*) eta elorri beltzak (*Prunus spinosa*) ditut nik inguruan lurrinemai-le. Horiek erdiz erdi hotzaldiak eta euri luzeak harrapatu dituzte eta ez daukate atarramentu onik; lurrina emanagatik zail dute polinizazioa eta fruitu eta hazi ekarri eta ematea. Sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) eta haritza (*Quercus robur*) begiak irekitzen eta hostotxo berrien artean lore zintzilarioak bixtaratuta atzeman ditu hotzak eta irekiera mantsotu dute. Hurrengo bero kolpean a zer jantzia hartuko duten, eta sasiakaziaren lurrinak udako beroeneraino eramango du gogoia. Zer da gozoetan gozoa!

Lurrin gozoa ez duten landareak ere badira, ordea, badirenez. Egun hauetan etxean eta etxeko ditudan lagun batzuen etxean ere zuhaitz landaketan aritu gara. Sagastiak batetik (*Malus domestica*) eta udareondo (*Pyrus communis* "Sanjuan udare"), ezki (*Tilia platyphyllos*), arana klaudia gorri (*Prunus domestica* "Reine Claude d'Althaus"), gaztainondo (*Castanea sativa*), xarma (*Carpinus betulus*) eta pagoa (*Fagus sylvatica*) landatu dugu, baina baita ginkgoa ere (*Ginkgo biloba*). Azken horiekin dator usainik onena. Hobe esanda, kiratsik txarrena. Ginkgoa

dioikoa da, hau da, zuhaitz batzuk arrak eta beste batzuk emeak dira. Biak udaberrian loritzen dira, baina alea eman, beti bezala, emeak ematen du. Ale hori udazkenean heldu eta lurrera erortzen denean inguruan egotea ezinezkoa da, lagunaren kaka-usaina du, garbia, imitazio ezin hobea. Oraindik ez dakigu zergatik imitatzen duen hain ondo gure gorrotzaren usaina. Zer onura ematen dio haziaren zabalkundeari? Ikaragarriko kiratsa zabaltzen du. Kutsadurari ondoen eusten dion zuhaitzetakoa da eta hirietako kaleetan asko landatzen da. Lehen edozein landare jartzen zen, hazitik sortu eta kitto, orain, ordez, usaina dela medio, soilik arrak landatzen dira; ugaldtu ez beste lan guztiak bete ditzan: gure arnasa garbitu, itzala eman, hiria berdatu eta abar.

Emearen emankortasuna kirasduna izango da, baina ez txarra. Asia ekialdean jan egiten dute (Txinan, Japonian, Korean), eta prestatzea ez da zaila: ez usaituarena egin eta aleak bildu; mami kirasdunetik barruko hezurak bereizi, eta uretan ondo-ondo garbitu; hezurak berritri garbitu; bi minutuz uretan irakin, atera, koipe pixka bat duen kazo edo paderan erregosten jarri, estalita eta arto krispetak bezala lehertu eta azala pitzatuko zaie. Orduan daude jateko onenean, gatz ttanta batekin edo nahi bezala. Gutizia bikaina.

Boladan jarri bitartean aprobetxatu eta jan. Mendiko ondotan ez bezala, ez duzu konpetentzia handirik izango bilketan. On egin. ●

Gingkoaren haziak. Irakin ondoren zartaginean erregosita oso goxoak dira.

## AGENDA

**APIRILAK 12 · Gauegiz Arteaga**  
**Jakoba Errekondo**ren hitzaldia.  
19:00etan Kultur Etxean.

**APIRILAK 25 · Agurain**  
**Josebe Blancoren** hitzaldia  
Hausnarrean, ardiek egin naute  
artzain liburutik abiatuta.

**APIRILAK 27 · Azpeitia**  
Sendabelar baratzea tailerra,  
**Garbiñe Larrea**ren eskutik. Kimu  
Baten 17:30ean. Izena emateko  
deitu: 943 15 00 85.

**MAIATZAK 3 · Urnieta**  
**Garbiñe Larrea**rekin  
sendabelarren tailerra, Xoxoka  
auzoan.

**MAIATZAK 16 · Zumaia**  
**Josebe Blancoren** hitzaldia  
Hausnarrean, ardiek egin naute  
artzain liburutik abiatuta. 18:30ean  
Emakumeon\* Etxean.

**MAIATZAK 17 · Leitza**  
**Josebe Blancoren** hitzaldia  
Hausnarrean, ardiek egin naute  
artzain liburutik abiatuta. 18:00etan.

**MAIATZAK 18 · Artea, Arratia**  
**Josebe Blancoren** hitzaldia  
Hausnarrean, ardiek egin naute  
artzain liburutik abiatuta. 12:00etan  
Herriko Bentan.

## NEKAZARIAK ESKOLAN

## ESKOLA EZIN BADA BASERRIRA IGO, BASERRIA JAITSIKO DA IKASTETXERA...



GARAZI ZABALETA

**H**amar urte baino gehiago daramatza martxan Arabako Nekazariak Eskolan proiektuak, Hazi fundazioak zenbait ekoizlerekin elkarlanean bultzatzen duena. Haur eta gaztetxoak nekazal mundutik geroz eta deskonektatuago bizi diren garaiotan, inoiz baino beharrezkoagoa da elkar ezagutzeko eta bi munduak harremanetan jartzeko guneak sortzea, eta horregatik abiatu zuten egitasmoa. “Landa eremuko bizia ikasleei ezagutaraztea da proiektuaren helburua, eta horretarako, ekoizleok joaten gara eskoletara tailerrak ematera”, azaldu du Sergio Martinez de Rituerto erlezain arabarrak. Lehen urteetatik egitasmo ko partaide da bera.

## ESKOLAKO PASILLOAK LURREZ ZIKINTZEAREN ONURAK

Gaur egun hamar bat ekoizle dira proiektuan parte hartzen dutenak, nahiz eta hamarkada honetan zehar asko izan diren bertatik pasatu diren nekazari eta abeltzainak. Ikasturte bakoitzean 40 eta 50 tailer artean ematen dituzte herrialde osoko eskoletan: “Eki-menarekiko interesa erakusten duten



eskola guztietara mugitzen gara, Araba osoan”, azaldu du.

Proiektuan parte hartzen duten ekoizleak eta bultzatzaileak urtean bizpahiru aldiz elkartzen dira landuko dutena denen artean antolatzeko eta zehazteko. “Hainbat ekoizpen motatako jendea biltzen gara: behi-ukuiluak dituztenak, barazkiak ekoizten dituztenak, eredu intentsiboagoan nahiz eredu ekologiko txikian, gaztagileak, mahastizainak...”. Familia-ekoizpenak dira guztiak, eta garrantzitsutzat jotzen dute ekoizleak beraiek izatea eskoletara joaten direnak, lehen pertsonan hitz egiten dutenak. “Hurbileko ekoizpenak bizirik mantentzearen garrantziaziak ohartaraztea da helburu nagusia, nahiz eta ekoizle bakoitzak gure modura antolatzen dugun jarduerara”.

## URTERO MILA IKASLE INGURU

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei zuzenduta dago programa, 11 eta 12 urteko ikasleei. Aurreko zenbait urtetan gazteagoekin ere elkartu ziren ekoizleak, 8 eta 12 urte bitartekoekin. “Ikasturte bakoitzean 900 eta 1.000 ikasle artean pasatzen dira gure tailerretatik”, azaldu du erlezainak. Urte batetik bestera, ekoizleak txandakatuz doaz haien artean, ikasleek jarduerara bat baino gehiago ezagutu dezaten.

“Eskola batetik bestera asko aldatzen da, baina, orokorrean, eta batez ere hirian, haurrak landa eremutik oso deskonektatuta bizi direla sumatzen dugu. Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela landa eremua eta hango herri-tarrak existitzen garela ikustea, elikagaiak nork eta nola ekoizten dituen ikas dezaten”.



“Gure energia-iturria ona bada, kalitatezkoa, ekologikoa, gure errendimendua hobea izango da.

—  
PAULA REMÍREZ  
Taekwondolaria eta irakaslea, IRUÑEA

**ETORKIZUNA  
EKOLOGIKOA DA  
aurrera goaz!**





## PRAKTIKALDIAK



Ainara Rodil ormaiztegiarra ARGIAko erredakzioan.

# Bizitzaren unibertsitatea, erredakzioa

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**I**biliaz ikasten den bezala oinez, idatziz ikasten da kazetaritza egiten. Praktikatu, jardun eta dakienari erreparatu eta galdetu. Horretan ari da Ainara Rodil (Ormaiztegi, 2001). Otsailaren 1ean hasi zuen praktikaldia ARGIArekin eta berarekin hitz egin dugu, nola dabilen jakin nahian. Uste okerra izan dut orain arte, pentsatzen bainuen kazetaritzako unibertsitateko graduaren nahitaezkoak zirela praktikak; baina ez, aukera modura bakarrik eskaintzen dituzte. Pasa ditzakezu lau urte kazetaritzaren historia eta teoria ikasten, kasik kazetaritza lan erreallik egin gabe. Eta gero... bertigoa sentitzen baduzu lan-mundura jauzi egiteko sartuko zara master batean; eta gero bestean. Aina-

rak praktikak egiteko aukera aprobetxatzea erabaki du.

“Lehendik ezaguna nuen ARGIA, heldabide independentea dela banekien, Zeruko Argiatik sortua dela, ‘Kazetaritza ez da delitua’ kanpaina eta mozal legearekin izan dituzten gorabeherak pixka bat kontrolatzen nituen... ez zen komunikabide arrotz bat niretzat hemen praktiketan hasi aurretik”, azaldu digu. Baina harrituta geratu da antolatze moduarekin, askori gertatzen zaion bezala. “Ez gaude ohituta ARGIArean bezalako funtzionatzeko moduekin, horizontaltasun horrekin; denen artean hartzen dira etxe honetan erabakiak”, azpimarratu du gazteak. “Gustura” dago, “asko ikasten” ari dela kontatu digu, kazetaritza egiten ikasten ari dela eta

## HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten



3 aleren zozketa!

ARGIAko kideen artean hiru *Hizki pizti* jolas zozketatuko ditugu. Zozketan parte hartu nahi dutenek e-mail bat idatzi beharko dute komunitatea@argia.eus helbidera edo telefonoz deitu (+34) 943 371545 zenbakira, **martxoaren 27a** baino lehen, kidearen izen-abizenak adierazita.

Jolasaren bitartez, irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa** da. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daiteke.

Alfabetoko hizki bakoitzak, eta hortaz, soinu bakoitzak Euskal Herriko animalia bat irudikatzen du.

aholku eta gomendioak arretaz jasotzen ditu, praktikaldiak iraungo duen lau hilabetei zuku ateratzeko. “Zuzenketak egiten dizkirate, noski, baina askatasun handia sentitu dut hasieratik idazkera aldetik, gaiak lantzeko moduarekin... jende jatorra topatu dut lantaldean eta kazetaritza ikasketak egiten ari den edonori gomendatuko nioke ARGIArekin praktikak egiteko”, azpimarratu du.

Unibertsitatean hasi aurretik Andoingo Zine eta Bideo eskolan erreializazioan espezializatutako Goi Mailako Zikloa osatu zuen, Batxilergoa bukatu eta norabidea garbi ikusten ez zuela. ARGIArekin praktikaldia bukatutakoan unibertsitateko ikasketak amaitzea du helburu. Gero, geroak. ●



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Ia denak du prezioa

**F**iladelfia (AEB), 1838ko uztailearen 11. John Wanamaker jaio zen, geroa marketinaren alorrean eragin handia izango zuen enpresaria. Koinatuarekin batera hasi zen merkataritza eremuan lanean, 22 urte zituela. Biek denda bat ireki zuten orduan; eta negozioa pixkanaka hazten joan zen.

1910ean Wanamaker's saltoki handia zabaldu zuen bere hirian, eta bertan egun oso ohikoak zaizkigun praktikak abiarazi zituen: merkealdiak antolatu zituen urteko sasoi jakinetan, eguberrietan ikuskizunak antolatu zituen bezeroak erakartzeko, saltokiaren barruan jatetxeak jarri zituen, eta erositako produktua probatu ondoren itzultzeko aukera ematen hasi zen. Publizitatean ere aitzindari izan zen eta berea omen da esaldi ezagun hau: "Publizitatean gatatzen dudan diruaren erdiak ez du ezertarako balio. Arazoa da ez dakidala zein erdi den".

Bere lorpenik handienetakoa salgaien prezioak finkatu eta etiketen bidez adieraztea izan zen. Kristau sutua zen Wanamaker eta fedeak bultzatuta hartu omen zuen erabaki hori: Jaungoikoarentzat gizaki guztiak berdinak omen garenez, guttiz bidegabea iruditzen zitzaion edozein produktu erosteko bezeroak tratuan aritu behar izatea. Horrela, denentzat salneurri berdina ezarrita, ez zen desberdintasunik egongo. Erosteko ahalmenean gorabehera izugarriak zeudela, ordea, ez zuen konstantuan hartu; Jaungoikoaren bideak asmae-



AEB-KO KONGRESUKO LIBURUTEGIA

Lehen Mundu Gerra garaian, John Wanamaker (1838-1922) enpresariak Belgikari prezioa jarri zion: ehun mila milioi dolar.

zinak direla pentsatuko zuen orduan.

Tratua gaur egun baino ohikoagoa zen arren, produktu askok prezio finkoa zuten lehenago ere, eta, ziurrenik, askok prezio horiek etiketan jarriko zituzten bezeroek ikus zitzen. Wanamakerren meritua prezioen etiketak sistematizatzea eta, batez ere, bere burua ondo saltzea izan zen. Marketingean aitzindari, bere buruari publizitate bikaina egin zion: bere salgaiak kalitate handikoak ziren beti, bere langileek beste inork baino lan baldintza hobek zituzten, publizitatean ez zuen sekula gezurrik esaten...

Hain ondo garbitu zuen curriculum distiratsuan, ordea, orban batzuk geratu zitzaizkion, bere jardun politikoan bereziki. Lehen Mundu Gerran, guztiari prezioa jartzeko obsesioak bultzatuta-edo, proposamen bitxia luzatu zien AEBetako kongresukideei. Ordurako Alemaniak Belgika okupatuta zeukan eta Wanamakerrek proposatu zuen AEBek Alemaniari herrialde okupatu osoa erostea. Horrela, gatazka behin betiko bukatuko zela uste zuen. Proposatutako prezioa ehun mila milioi dolarrekoa izan zen, kongresuak eman zion ezezkoa bezain biribila. ●



SCIENTIFIC REPORTS

## 4.000 urteko ezpain-margoa

Paduako (Italia) unibertsitateko ikerlari talde batek Iranen 2001ean aurkitutako harrizko ontzi txiki bat aztertu du. Zehazki, flasko barruan zeuden arrastoak aztertu dituzte, eta hainbat osagai dituela ikusi dute: hematita xehetua -kolore gorri biziko mineral oxidoa-, manganita, braunita eta kuartzo partikulak. Pigmentu gorria ezpainak margo-

tzeko erabiltzen zutela ondorioztatzea ez da zaila izan "pigmentuak antza harrigarria duelako gaur egungo ezpain margoen errezetarekin", Massimo Vidale arkeologoaren hitzetan. Flaskoa eta pigmentua duela 4.000 urte ingurukoak dira, Kobre Arokoak, eta orain arte aurkitutako ezpain-margo arrastorik zaharrenak dira. ●



## MUSIKA IRUDITAN (I)

# Bideoklippei begira, lentearen beste aldetik

Mundualdi honen soinu-banda osatzen duten abesti gehien-gehienek propio filmatutako irudiak izan ohi dituzte: bideoklipak. Musikariengandik oso gertu, ikus-entzunezko egileen belaunaldi gazteago batek lan horretan aurkitu du zineman edo telebistan ez duen hori: trebatzeko aukera, arriskatzeko askatasuna eta gaitasuna frogatzeko balizko erakusleihu bat. Baina nola eramaten da kanta bat irudietara? Zenbat du lan horrek militantziatik? Egin daitezke bideoklipak marketinaren joko-arauetara makurtu gabe?

 LANDER ARRETXEAA BEREZIARTUA  ARRIGURI ETA BADATOR (MARIO LEZAUN) / COPYRIGHT


**B**adira gutxienez lau hamarkada musika eta bideoa estuki lotuta aurkezten zaizkigula. 1981ean sortu zen MTV katea eta hamarkada horren amaieran iritsi ziren formatuaren oihartzunak euskal eszenara. Baina urte guztietako bideoklippei begiratuta, bada uzta garaikidea zaharragoengandik bereizteko motiborik. Kopuruaren gorakada da bat: 2023ko irailetik hona, euskal abesti bat oinarri duten 62 ikus-entzunezko berri jaso ditu *Badok* atariak. Ez da aitzakia bakarra. Nabarmendu diren musikari gazteen lana erreparatu besterik ez dago: agerikoa da, bideokliparen bidez, euren proposamen artistikoari geruza gehiago eransteko egin duten ahalegina. Talde edo bakarlari askoren ibilbidea adinkide eta lagun dituzten ikus-entzunezko sortzaileen belaunaldi berri(ago) batekin paraleloan garatu da. Musikariak entsegu lokaletan utzita, kamera eta argi arteko lanean dabiltzan horiengan jarri dugu fokua.

### BEHARRIZANETIK BEHARRERA

Asko dira zenbaitek “euskal bideoklip-gintza berri bat” ahotan hartzearen erantzuleak. Baina zerrenda horretan azpimarratu beharreko izenik bada, Arriguriarena da. Xabi Ojinagak, Asier Renteriak eta Ander Mateosek osatu zuten ekoiztetxea, eta bideoklip bat izan zen, hain justu ere, hirurak batu zituen. Urgatz taldeko kide ziren Renteria eta Ojinaga, eta haien bideokliparekin laguntza eskatuz jo zuten Mateosengana. Esperientzia ona izan zen, antza. Geroztik, eta 2016an Arriguri sortu zutenetik, lan-taldeko aldaketak gora-behera, dozenaka bideoklip egin dituzte: mimo handiz, nazioarteko bideoklip puntakoenetako joerak begirada pertsonalarekin uztartuta. Bestelako ikus-entzunezkoak ere egiten dituzten arren, musikariekin –edo haientzat– egin dituztenak dira arreta gehien bereganatu duten lanak, eta eraman dituenak, gero, bestelako eskaerak jasotzera. Ez da plan baten ondorioa izan, Ojinagaren

arabera: “Normalean ez dugu ezer asko planifikatu edo pentsatzen. Bideoklipak egiteko beharrizanagatik ezagutu ginen, eta gaur arte”.

Geroago abiatu baziren ere, ez da oso bestelakoa Badator estudioak egin duen bidea. Ander Merinok eta Thomas Ibarrolak zuzentzen duten ekoiztetxearen lan askotan musika da abiapuntua. Izaroren *Limoiarri ezitia* dokumentala eta *Cerodenero* diskoa osatzen duen bideoklip-sorta ondu dituzte, besteak beste. Bideoklipen garrantzia auzitan jartzen den garaiotan, duten balioa aldarrikatzen du Merinok. “Badira batzuk esaten dutenak gaurko musikan gitarra distorsionatu edo autotune gehiegi dagoela. Bideoklipekin ere berdin. Hori artista bakoitzaren erabakietako bat besterik ez da”. Irudia gehituko dioten elementuak erabiltzeak musikariaren proposamenari beste dimentsio bat ematen diola dio, eta berari, musikaria ere baden neurrian, ezinbestekoa iruditzen zaiola hori baliatzea.



Arriguri eta Badator (Mario Lezaun) ekoiztetxeen argazkiak, bideoklipen grabaketa unekoak.





ARRIGURI



ARRIGURI

## ABERASTU EGITEN DU...

Merina Gris, Hofe, Zea Mays, Huntza, Iza-ro, Amorante... Badatorrek zein Arrigurik egindakoak azken urteetako bideoklip txalotuenen artean daude. Formatu analogikoen erabilera edo argazki-zuzendaritzan egindako lan fina dira bereizgarri egiten dituen ezaugarrietako batzuk. Hori bai: haiek hasitako bide hori beste asko urratu eta zabaldu dute gero. Ojinagak dioenez, asko zorientzen dituzte, haienak direlakoan, beste batzuek egin dituzten bideoklipengatik. "Hasi ginenean baino jende gehiago dago orain honetan, eta tartean talentudun gazte asko daude. Artistikoki asko aldatu da, hobera".

Arrigurikoen lana inspirazio zaion bideogileetako bat da Ane Berriotxo zornotzarra. Dioenez, bideokliparen sektorea indartsu egotearen arrazoi nagusia musika eszena ere indartsu egotea da. "Askotarikoa eta aberatsa da panorama musikala, eta hori inspirazio handia da ikus-entzunezko egileentzat". Zinema gehiago interesatzen bazaio ere, gustua hartu dio bideoklipak egiteari. Eire taldearen, Olatz Salvadorren edo Olaia Inziarteren abestien ikus-entzunezkoak zuzendu ditu, besteak beste. Merinoren bide beretik, uste du musikaren bueltan dauden ilustratzaile, argazkilari eta aba-

"Askotarikoa eta aberatsa da panorama musikala, eta hori inspirazio handia da ikus-entzunezko egileentzat"

### Ane Berriotxo

rreren sare oso interesgarria dagoela, izugarritzko lan ona egiten ari dena. "Inguruan dauden artista horiek guztiek euskal musika aberasten dute".

### ...BAINA EZ DU DIRURIK EMATEN

Irudiz aberastu daiteke abesti edo disko bat, hortaz. Lan hori eginez bizibidea atara ote daitekeen, beste kontu bat da hori. Merinoren arabera oso zaila da, musikari gehienen egoera prekarioa dela jakinda, bideoklipak eginez bizi daitekeenik pentsatzea. Badator estudioan behintzat, beste lan batzuk uztartuta soilik egin ahal izan dute aurrera. "Exijenteak gara gure buruarekin, eta gaur egun egiten diren mailako lanak egin ahal izateko, beti sartu behar dira kobratuko direnak baino ordu

gehiago". Antzera gertatzen zaie Arriguri ere, Ojinagak aitortu duenez. Duela gutxi arte, bi edo hiru laguneren artean egiten zuten dena, baina gero eta jende espezializatu gehiagorekin batu dira azken boladan. "Horrek eraman gaitu artistikoki lan potoloagoak egitera, baina lanak konplexuago ere egin ditu, eta, normala denez, talde gehienek ez dute lan hori ordaintzeko behar beste diru".

Mattin Saldias argazki zuzendaria eta musikaria da. Barru-barrutik ezagutu ditu azken urteetan egin diren bideoklip askoren lan prozesuak. Dioenez, gauzak ahalik eta ondoen egin nahi izateko joera dute askotan, baina horretarako asko jarri behar izaten dute euren partetik: gehiegizko ardurak hartu, material propioa jarri, elkarri mesedeak eskatu... Argi du belaualdikide dituen egileen artean sortu duten bideoklipen maila hori ez dela erabat jasargarria. Ez behintzat alokairua eta autonomoen kuota ordaindu behar dituenarentzat. Bat dator Ojinaga: behar material gutxienekoak kubritzeko inguruko laguntza dutenak dira, askotan, halako proiektuetan mantentzeko gaitasuna dutenak. "Bestela oso zaila da".

Zer da, orduan, bideoklipen maila altu hori sostengatzen duena? Saldiasen ustez, gauzak egiteko grina: "Bideoklipak

egin ditzakezu teknika berriak edo materiala probatzeko, edo ideia asko gustatu zaizulako, edo uste duzulako talde jakin batek merezi duela bideoklip on bat. Batzuetan nahikoa zaizu lan hori egitea, doan izanik ere. Baina zaila da motibazio horri denbora luzez eustea”.

### ASKATASUN EREMUA

Motibazio hori ez itzaltzeak lotura du askatasunarekin, Ander Merinoren arabera. Musika taldeak proposamenak jasotzeko prest egon ohi dira, eta bideogileek telebistan edo publizitatean ez duten askatasuna dute haien lanaren nondik norakoak erabakitzeke. “Askatasun hori gabe zentzua galduko luke gure lanak. Horrek mantentzen gaitu honetan”.

Ane Berriotxoak askatasuna bezainbeste estimatzen du musikariekin elkarlanean ideia bat garatzeko prozesu hori. “Egon behar da entzute oso aktibo bat bi aldetatik. Nik errespetatu behar dut musikariak transmititu nahi duen hori, eta hortik, niretik edo nik ditudan gaitasu-

“Gaur egun egiten diren mailako lanak egin ahal izateko, beti sartu behar dira kobratuko direnak baino ordu gehiago”  
Ander Merino

netatik, ekarpena egin gero. Orduan sortzen dira gauzarik berezianak, bi aldeek ulertzen dugunean zer ari garen egiten eta zergatik”. Hasierako ideari gehiago erreparatzeko premia sumatzen du Saldiasak: “Argazki zuzendariaren lana gero dator, baina lehenengo pausoa zerbait transmitituko duen ideia lantzea da. Hori ondo egiteak lan eta diru asko aurrez dezake, eta ez dugu beti kontuan hartzen”.

### HURRENGO PAUSOA: FIKZIOA?

Bistan da: euskal musikariek gertu dituzte talentu eta pasio handiz lan egiten duten ikus-entzunezko egileak. Egindako bideoklip horiei esker sortu dira harreman sareak; eta gazte asko trebatu dira haien gaitasunak eta begirada zorrozuta. Besterik da, epe luzera, bideoklipekin estuki lotuta hasitako bideek zein norabide hartuko duten. Berriotxoari zinema egitea gustatuko litzaioke, adibidez; besteak beste, bideoklipen dinamikak askotan behartzen duelako erritmo azkarregietan lan egitera. Fikzioa edo dokumentalal egin ahal izateko baliabideak lortzeko saiakera (ustel) bat baino gehiago egin dituzte Arrigurin eta Badatorren ere; baina sos horiek lortzeko ez da nahikoa bideoklip curriculum oparora erakustea. Aitortzen dutenez, hala ere, ahalegin-tzen jarraitzeko indarrez daude oraindik. Nork daki: agian, hemendik gutxira, haiek izango dira musikariren atea joko dutenak: “Aizue, konposatuko zenukete soinu-banda bat gure filmerako?”.

## MTV-tik Instagramera

Aktualitatearen distirak ez itsutzeko, komeni da “kalte-bideoklipen” artxi-boan arakatzea.

Adituak ere ez datoz bat lehen aitzindariak bilatzen dituztenean. Zenbaitek –eta hala jasotzen du, adibidez, Wikipediak– Elvis Presleyren 1957ko *Jailhouse rock* abestiarentzat egindako ikus-entzunezkoa aipatzen du mugarri gisa. Bideoklipa egonkortu eta estandarizatu zuen gertakaria argiagoa da: 1981ean sortu zen MTV katea, 24 orduz bideoklipak eskaintzen zituena, eta bilakatu zituena, orduan bai, marketin tresna definitibo. Eta euskal eszenan zer? Hau idazten ari den honek Fermin Muguruzaren *Big Beñat* abestiarentzat Korrikak egindako bideoa du gogoan. Gerora zinegile gisa ibilbide oparora izan duten Telmo Esnalek eta Asier Altunak zuzendu zuten 2001an, hautsak harrotu zituen lan hura. Baina sei urte lehenago ere, 1995eko Korrikak dagoneko izan bazituen kantua eta bideoklipa. Ordurako antzeko lanak egiten hasia zen Iker Treviño bideogile eibar-

tarra. 1989an hasi zen horretan, gertukoak zituen Su Ta Gar edo Cancer Moon gisako taldeentzat, hain justu. Hori bai, orduan ere, sos gutxirekin. Gogoratzen du garai hartan euskal musikak ez zuela ia ikus-entzunezko adierazpenik, eta hutsune hori betetzea zela motibazio nagusia. “Bideokliparen hizkuntzarekin jolasten eta taldeen estetika lantzen hasi ginen”.

Gerora bai, Sony eta Warner gisako zigilu erraldoiekin kontratuak zizuten taldeentzat lan egin zuenean, lortu zuen Treviñok bideoklipe esker bere bizibidea ateratzea, beti ere beste lan batzuekin uztartuta. Ezagutu zuen bideoklipak marka komertzialen publizitatea egiteko erakusleia bilakatu zireneko garaia ere: errealizadore gisa, marka jakin bat modu ahalik eta naturalenean nabarmentzeko moduen bila aritu behar izaten zuen. “Gastu bat izatetik, etekina ateratzeko tresna izatera igaro zen bideoklipa batzuentzat”. Ez zion utzi, haatik, euskal musikarientzat lanak egiteari. Ruper Ordorika, Fermin

Muguruza edo Benito Lertxundiren abestiei irudiak jarri dizkie, besteak beste.

Gaur egun bideoklip gutxiago egiten ditu –azken lanetako bat *Vinu, cantares i amor* kantaren Anariren bertsioarentzat egindakoa izan da–, baina arretaz jarraitzen du besteek egiten dutena. Aitortzen du Arriguriren agerpenak sorpresaz harrapatu zuela, eta berehala izan zuela, aspaldiko partez, “zerbait berria” gertatzen ari zenaren sentipena. Zentzu horretan, uste du haiek eta atzetik etorri direnek jakin dutela bideoklipari heltzeko bide berriak lantzen, eta egokitzen, bere arriskuekin, sare sozialek hainbesteko pisua duten garai globalizatuago hauetara. Hori bai, sumatzen du, orain ere, euskal musikariren bideoklipak egitea ez dela patxadaz bizitzeko helduleku egokia izango. Beste kezka bat ere badu: ondo dago sarean erreferentzia garaikideak bilatzea, baina inspirazioa beste leku batzuetan ere bilatu behar da. “Bestela, dena kopiaren kopia izateko arriskua dago”. ●





# Hitz gezidunak

KOPETA BIZIKLETAREN PIEZA	ZABALKETA DAUKA	LOKATZ, BASA			AZKEN URTARO BIZKAIKO HERRIA	TOKI HORRETARA OPIOAREN ALKALOIDEA	BEREZ IKERRALDI BAT EGIN
HEXAEDRO LOTAN					PERTSONAIAREN IZENA NAFARROAKO HERRIA		
	INTERJEKZIOA ALIRITZIRA, ABURUMENKA		...VICIOUS, PUNK KANTARIA POSTU	ZURRUTADA LIBIAKO HERRITAR			
KILIKA ...ZART, KOLPEAREN ONOMATOPEIA					ALDI NAFARROA BEHEREKO UDALERRIA		
		KONTZEPTU PERTSONAIAREN ABIZENA				...GUNEAK, TELEZENTROAK ESTUTASUN EGOERA	
AZTERTUA IZATEKO GAIDENA	ZIMUR AKARO			BARRUA UZTAIA			BEZAINBAT
					TXALMA SENDOA LANDARE BERRI		
EUSKAL DISKOETXEA DOKUMENTU, TXARTEL		GURASO (IPARRALDEAN) NORAT ATZIZKIA				DAUKAT (ALDERANTZIZ) NAFARROAKO UDALERRIA	
			SUMENDIAREN AHO TALIOA				BAT ERROMATARRA LEHEN BI BOKALAK
GARBITU, XAHUTU MERKATARI, TRATUGILE				...BIS, AURREZ AURRE ROENTGEN			
					GOGOBEA		

## Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

8	4							
		5	6		1			8
6	9			8	4			
		6	9		5		3	1
	4			6				
3	5		8	1		6	4	
	2		4	9	3		1	
	6			7			2	
	1	8				9		3

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Esanez
2. Ibar txiki
3. Bukatu da!
4. Gradu militarra
5. Zakoteak


## EBAZPENAK

3	6	9	6	2	8	1	4
4	1	8	2	5	7	3	9
5	8	5	2	8	5	2	4
9	1	7	8	1	6	4	6
5	2	7	4	3	8	1	9
1	4	6	3	6	2	7	8
8	7	6	9	4	5	2	3
6	9	1	7	8	4	3	5
7	3	5	6	2	1	4	9
2	8	4	5	3	9	1	6

### 5XS

L	R	V	T	U	L	V	R	R	
B	I	S	E	V	A	N			
A	G	I	R	I	R	I			
Z	I	Z							
V	Z	V							
Z	I	Z							
R	I	Z							
K	I	L	K	I	L	K	I	L	K
L	O	L							
K	O	B							
L	E	M							
N									



# Dementoreak eta boomerrak Atarrabian

✂ IÑIGO SATRUSTEGI   📷 IBAI SALAZAR

**P**ello Reparazek eta bere bandak *show*-a prestatuko zutenik ez genuen zalantzarik, kontua zen nolakoa. *Aaztiyen tour*-ari ekiteko lehen hiru kontzertuak Atarrabian –(sic.) *Nafar lurretan, non bestela?*–, eta horietatik bitan, *sold out*.

Zetak taldearen disko berria eta beste lau urteotan sorturiko abestiak jaso ditu ikuskizun berrian. Baina batez ere lan berraren soinuak eta irudia nagusitu dira kontzertuan. Hasiere-hasieratik kanpai hotsen oihartzuna ageri da (hasieran ere protagonista da kanpaia eta susto txiki bat ere eraman genuen) eta ematen du edozein momentutan hasiko dela Neomakeko ahotsekin batera *Ahaztuko badira kantuak...* Baina ez. Berdin *Deskontrola* kantuarekin. Hasi bai, eta erdizka utzi, amaiera aldera berriz berreskuratzeko. Ez naiz bereziki *pullout* horien aldekoa.

Argiek ere badute beren funtzioa emaldian. Kanta bat horiz, beste bat laranjaz, beste bat morez, den-denetan ere itzalak eta kontraargiak. Reparazen silueta dantzan ikus daiteke aldiro, orain androginoago, orain pauso maskulinoagoetan. Bazuetan kasik, argia zian-berdexka zenean, Slytherineko dementoreak gogora ekarri dizkigula ez dut ukatuko. Asko pentsatu dut kontzertuak duen baliabide teknikoaren beharrez eta ekoizpenaz. Eta egiaz, pentsatzen dut aurreko biretan ere erabilitako kubo-efektuko laserra ez dela merkea izango, eta jakina, amortizatu behar. *Guapo* dago efektua berez.

Arreta berezia eman digu Totemera bertaratu direnen adin tarteak: gaztetxoenetatik *boomerretara*. Batez ere azken horiek. Arreta deitu, era berean, irudiak nola grabatzen dituzten ez hain gazte horiek: horizontalean. Modernoak bai, baina

## ZETAK

**NOIZ:** otsailaren 23an.

**NON:** Atarrabiako Totem aretoan.

sareetara egokitu gabeak. Argipen bat honen harira: Instagrameko *stories*-etarako bertikalean grabatu eta ateratzen dira irudiak. Ez horregatik.

Sinbologiaz eta keinuz josiriko kontzeptua da *Aaztiyen*. Folklorearen dimentsio berri bat. Tradizioetatik edaten duena, eta tradizioak horixe bera dira: herri ohiturak. Eta herriak, hala esan badakioke, gaur egun, nahi ditu dantza eta teknoa. Eskutik jasota dakartza arbi-zuarrak. Gustuak gustu.

Zentrolean ikusi nituen pandemia osteko lehendabiziko parranda horietako batean. Nago areto txikiagoa izanagatik ere, hobeto funtzionatu zuela. Edo espektatibak eta egoerak lagundu zutela, behintzat. Bueltaka hasiko dira orain nafarrak, areto, festa eta jaialdietan. Eta 2025eko urtarrilerako, sorpresa. Baina ez da kontzertu bat izango. ●







LIBURUA

# Arrazakeriak ez ditu suntsitu



## BARBARO IRAUN

LOUISA YOUSFI

TXALAPARTA, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

2022an Louisa Yousfik argitaratu zuen *Rester barbare* lana, eta Itziar Diez de Ultzurrunek eta Txalapartak euskaraz plazaratu zuten 2023an, Ainhoa Nadia Douhaibiren hitzostearekin. Aspaldi ez nuela hainbeste azpimarratzen liburu bat.

Euskaldunen barbarizazio prozesuari buruz aritu zitzaigun Ibai Atutxa due-la gutxi, baina oraingoan arraza dago tartean, “mairu-musulmanaren askakuntza”-ri buruz dihardu egileak lan honetan.

Bitxia da zein hurbil eta zein urrun dagoen Euskal Herri Hegoaldetik Frantziar errepublika. Hemen, oro har, hango errealitatea oso gutxi ezagutzen dugula esango nuke, eta liburu honetan bertako *barbaro* batzuen berri ematen da. Zehazki, zibilizatuak eraikitako per-

tsona ez-zurien imaginario arrazista dekolonizatzen lagundu diezaguke lan honek. Egileak dioenez: “Artxibozain eta idazlari garelarik, gure jardunaren ahalegin guztiak gure jendea zikindu duen estigma garbitzera bideratuko dira, gutarrak estereotipotik haratago irudikatzeraz”.

Yousfi integrazioaren arriskuez ariko zaigu (“unibertsaltasun deserrotua”) eta erresistentziarako deia egingo du hasieran. Jarraian, Mendebaldeko gaizkileen eta Inperioaren munstroen irudikapenak aztertuko ditu, eta Pariseko aldirietan zuria ez izatea zer den adieraziko du, nagusiki, rap talde pare baten jarduna eta ahotsa ekarrita. Azkenik, emakumeen parte hartzeaz gogoeta egingo du eta Douhaibik auzi hau Euskal Herrira hurbilduko du gibel solasean.

Palestinako genozidioa etorriko zaio gogora, agian, irakurleari. Batez ere hurrengo irakurritan: “Gaur egun objektu mairu-musulmanaren askakuntza da gerra iraunkorra eta azpiratze inperiala funtsatzen dituen eragile nagusia energia-baliabideetan oparoak diren eta gure bizitzak aurrerapen teknologikoz zein neurritz kanpoko kontsumoz hornitzen dituzten lurraldeetan”.

Azpiratuen arteko konplizitatearekin batera, zurtasuna landu behar dugu euskaldunok (zapalduak eta pribilegiadunak garen heinean) eta liburu honek bide hori urratzen lagundu ahal digu: horretarako eutsi beharko diogu konplizitate-parallelismoak –soilik– egiteko tentazioari eta gure botere-kokapenetik irakurri liburu honetako hitzak. Deseroso, kontziente eta gogoetatsu. ●



MUSIKA

# Egin dantza, egin (zutaz) barre!



GALDER IZAGIRRE

IKER BARANDIARAN

**P**olitikoki zuzena izateari gehiegizko garrantzia eman, baina politika zuzena falta den garai kupidaga-beotan esango dut Abregotarretatik, txerrietatik bezala, guztia dela aprobe-txagarria... eta ona! Artistak dira zen-tzu askotan eta bi anaiek gidatutako proiektuak (Bap!, Inoren Ero Ni eta Gailu) apurtzaileak, irudimentsuak eta bakarrak dira.

Gailuk izan ditu bizitza hainbat: Mikelek sortu zuen 2002an, eta berorrekin estreinatu zuen Metak-ek *Pil-Pil Sessions* izenpean bestelako lanak kale-ratzeko azpi-marka. Hirietako kamarek grabatutako zirkulazioaren soinu banda idatzi zuen esperimentazio ariketa egin-da denborak irentsi zuen.

Baina, 2021ean, Mikelek konposatzeari berrekin eta Okene-Eneko anaiek eta Drake-k lagunduta (hirurak Bap!eko kideak) proiektua berpiztu eta *Begiak, Egiak ba ote?* diskoa erditu zuten. Jarmusch, baserria, elektronika, hardcore-punk eskola, eta batez ere dantza zein barre egitea erribindikatuta. Marianok (Inoren Ero NI, Anari...) Drake ordezkatuta zuzenekoak ematen hasi ziren hirukote formatuan eta Okene, atrilarekin, eserita. Bestelako planteamendu estetiko minimalista baina efektiboa eta oinarri organikotik abiatuta dantza eta pentsaraztea bultzatzen duena.

Autotune-arekin zabaltzen dute diskoa, pilotari ikusgarria zen haien ahai-deari idatzitako aspaldiko bertsoak *Je-*



## AUTOSUNTSIPENA HASIA DA. 3, 2, 1... ZNORT!!!

GAILU

BIDEHUTS, 2023

*sus Abregori* kantuan musikatuta. Hasi da erritmoa eta dantza; eta jarraian datorren *Mongoloid*-en erritmo eztanda: elektronika organikoa, tronpeta jazzeroa eta Inoren Ero Ni are eta espaziala-goa!. *Quién soy* da arnasa hartzeko beta, baina baita hausnarketa sakonaren ondorioz buklean korapilatzen den kontakizun-kantua ere. *Euzko polizia* aldatuko ez garenaren adibide sutua da, eta, egia borobilaz gain, distortsiorik gabeko punk jostaria. *Hutsa biziz* da Okenek surfeatutako dance, jungle eta soul entsalada, eta *Baxx intro* Marianok disko osoan duen pisu eta abileziaren isla. Eta, azkenik, Edith Piaf-ek inspiratutako *Ez dut nahi lanik egin* pieza elektroniko ilun eta nagia. ●



# Anduezaren korrida

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**T**raje distiratsua eta montera beste okasio baterako erreserbatuta, jertse morea eta ukabil itsutu baten txapa paparrean agertu zen Eneko Andueza PSE-EEko lehendakari gaia martxoaren 8an Euskadi Irratiko estudioak toreatzera. Eta ez pentsa, tipoa nahiko ondo moldatu zen hasieran: Iñaki Guridi larrazezeneren lehen ekinaldien aurrean veronika eder batzuk atera zitzaizkion, adibidez emakume langileen eguna “aldarrikatzeko eta borrokatzeko” zela esan zue-nean.

Plaza osoa horrelakoekin mamiak urturik ikusita, muleta-paseetan laketu zen pixka batean: harrituta agertu zen, zenbait gizonek oraindik M8a emakumeak zoriontzen hasten dutela ikusita; eta gogora ekarri zuen egiteko asko dagoela. Faena borobil atera behar zitzaiola zirudien.

Gero ordea, hondar gaineko lanak moretik ubelera pasa ziren, eta adarren bat gertu samar pasa zitzaiola sumatuta edo, hanketan flakia nabaritzen hasi zela esango nuke. Ertzaintzaren azken asteetako jokabideaz galdetu baitzion kazetariak, alegia, hilabete eskasean polizia autonomikoak foam balak tirokatuz 16 urteko mutil bat, 60 urteko emakume bat eta 44 urteko beste bat zauritu dituela Tolosan, Gasteizen eta Donostian hurrenez hurren.

Ertzaintzan momentu honetan egoera ez dela onena esaten hasi zen Andueza, baina gero lan baldintzez eta falta diren material batzuek zeozer zezelkatzaren nahasi zen eta lantze hori nahiko desitxuratua geratu zitzaion.

Estakilladoreari urduri helduta, futboleko ultren kontra jardun zuen hurrengo paseetan, gaia Anoetako estadioaren inguruan gertatutakora murriztu nahian-edo. Zezenak geroz eta estuago hartzen zuen. Ondo-ondotik pasatzen zitzaion, haren izerdi beltza usaintzeko moduan, adar horiek trapua



ebaki behar zioten halako batean. Eta larri hartan, Anduezak erabakia hartu zuen. Ez traje distiratsu, ez jertse-etaxapa-aliatu-more: Ertzaintzaren Brigada Mugikorraren Unitateko uniformea janzten hasi zen elkarrizketaren erdian.

Ordurako publikoaren parte bat, purista samarra dudarik gabe, marmarka ari zen ezin dela piura horrekin atera, kasko, iskilu eta botatzarrekin, tertziolanak egitera. Baina PSE-EEren lehendakari gaia badaki 600 kiloko animaliak ere erraz etzaten dituela munizio polizialak eta, total, paraje hauetan geroz eta jende gutxiagok apreziatzen du taumomakia, beraz, zertarako nekatu.

Ugartekoren espirituak hartu zuen, hortaz: “Ertzaintzak nik uste bere protokoloak dituela eta istiluak sortzen direnean sartu egin behar dira. Hor ez dago inongo dudarik. Protokolo horren barruan beren lana egiten badute, ba ederto, ezta? (...) Nik beti diot gauza

bera: niri poliziak ez dit inoiz pilota batekin edo borra batekin eman, ni mugimendu horietan ez naizelako sekulan egon”.

Korrida tamalgarri hura zuzenean entzun zuen honen iritziz, Anduezaren adierazpen horrek nahiko argi erakusten du gure liburu potolotik euskal gatazkaren orrialdea presa handi samarrez pasa dutela askok. Eta klaro, ez dute ikasi han idatzita zegoen funtsezko gauza bat: biolentzia jasan duen norbaiti buruz “horrek ere zerbait egingo zuen” –edo tankerako gauzak– esatea, indarkeria hori justifikatzeko modu bat dela. Edozein indarkeria justifikatzeko modu bat, alegia.

Azkenerako PSE-EEko lider adarkatua gai izan zen irratiko atzeko atletik ateratzeko. Zauri arinak. Baina kanpaina luze egingo zaiola aurreikusten dut. Ausarkeria ez baita aski zezen plazara ateratzeko: toreatzen ere jakin egin behar da. ●

## Zorionaz Xabier Amurizarekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)







# HIZKI PIZTI


Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

ARGIAko kideen artean...

3 aleren zozketa!

Parte hartzeko: [komunitatea@argia.eus](mailto:komunitatea@argia.eus)

Epea: **martxoak 27**



Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Egileak:

Amaia Egizazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

